



**UNIBERTSITATE  
LABORALAK  
mende erdia bete du**



# KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

## KOMUNITATEAK

- Auzo komunitateen administrazioa
- Etxebizitzak, garajeak, industriak...
- Jaurlaritzaren dirulaguntzen tramitazioa

## AHOLKULARITZA

- Fiskala
- Laborala
- Kontabilitateak
- Aseguruak

# 2018 URTE AMAIERAKO LIKIDAZIO BIKAINA

Unitate mugatuak  
stock-a edo 2018. urtea amaitu arte

%30-era  
ARTEKO  
DESKONTUAK

# %30

7  
URTEKO  
BERMEA

IBILGAILU BERRIA  
8 MODELO AUKERATZEKO

ARRISKU OROTAKO  
ASEGURUA **DOAN**  
URTEBETE



Hainbat  
**Km 0**  
**9.000€-ra**  
ARTEKO  
DESKONTUEKIN



**KONDIA**  
www.fordkondia.com

Promozio hauek ezin dira pilatu. Etor zaitez gure kontzesionario batera eta zuk nahi duzun modeloari aplikatutako deskontu eta baldintzen berri emango dizugu. Promozio hau FCE Bank, plc SE-ren bitartez finantzatzeko duten bezeroentzat da. Eskaintza 2018/12/31-ra arte edo stock-eko unitateak amaitu arte da baliozkoa.

**FORD KONDIA (EIBAR)**  
Otaola Etorb., 22. 20600 Gipuzkoa  
T. 943 202 091

**ZIORLA AUTOAK (IURRETA)**  
Santa Maña Auzoa, 19. 48215 Bizkaia  
T. 946 815 569



Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi  
eta Silbia Hernandez

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpurua

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
J.L. Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**  
Malen Jainaga  
eta Malen Illarramendi

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

**TELEFONOA:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Silbia Hernandez

**BANAKETA-ARDURA:**  
Mohammed El Ghabali

**TIRADA:** 8.200 ale

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian  
adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO  
UDALA**



**GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

# Eskutitzak

– Mari Domingiren gutuna –

Kaixo, maiteok: Badakit normalean zuek izaten zaretela niri gutunak bidaltzen dizkidazuena, baina oraingoa neu aurreratu naiz.

Kezkatuta nabil azken Gabonetan izan dituzuen joerengatik eta, Olentzerok kontu hauetan interes handiegirik ez daukanez, Eibarko beste sorgin batzuekin hitz egitea pentsatu nuen. Eskatu, erosi, xahutu, kontsumitu... Ez daukazue besterik buruan! Eta zertarako? Poltsikoak husten dituzue, munduko lau erraldoi aberasten diren bitartean. Nire maiteok... ez al dakizue, oraindik, zoriontasuna ez dela diruarekin erosten?

Ea ba! Kontatzen ari nintzen bezala, aurreko astean Eibar alderako martxa hartu nuen zeharo kezkatuta, eta Naluako kideekin bildu nintzen. Hauek ere arduratuta daude; izan ere, herrian denda berri asko zabaldu dira azken aldian. Baina ez edozelako komertzioak! Inside, Stradivarius, Springfield, Woman Secret... erropa merkeak ikusten dituzuen lekuan, milaka umeren eta emakumeren esplotazioa dago; Mercadona, El Corte Ingles... aukera zabalak ikusten dituzuen lekuan, lan bal-

dintza penagarriak eta prekarietatea; Juguettos, Afede... jostailu dibertigarriak dauden lekuan, eduki sexistak eta estereotipoen zabalkundea... Argi dago hori ez dela bidea.

Jakin badakit (gogoratu nik dena dakidala eta dena ikusten dudala) Eibarko hainbat familiak zailtasunak daukatela saldu nahi dizkiguten "gabon perfektuak" lortzeko, eta beste askok alternatibak nahi dituztela kontsumismo basatiaren zurrumbilatik ihes egiteko. Horregatik, TRUKE ETA DOAKO AZOKA antolatu dute Naluakoek!!!

Erropa, jostailuak, liburuak eta beste hainbat kontu egongo dira Untzagako Plazan abenduaren 22an, 11:00etatik 15:00ak arte. Edonor gerturatu daiteke bertan dagoena hartzera edota erabiltzen ez duen zerbaitengatik aldatzera. Ideia zoragarria, ezta? Nik ere eramango ditut gauza batzuk, noski, baina zuek ere animatu eta parte hartu!

Denon artean sistema kapitalista-heteropatriarkal honi aurre egingo diogu! Denon artean, DENONTZAKO gabon zoriontsuak eraikiko ditugu!

Mari Domingi

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MATAZA.** - Harila, euskarririk gabe bira handietan batuta dagoen haria. Gaztelerazko 'madeja'.

"Katuak matazia harrapatu dau eta gela guztia hariz beteta dago".

Zentzu figuratuan, egoera korapilotsua. Gaztelerazko 'llo, embrollo'. "Han urten daben matazia, zuzendu ezindakua".

Maluta. "Atzo mataza edarrak bota zittuan eta dana zuri-zuri geratu da".

## astean esanak

"Argia-rako elkarrizketa batean Gorka Urbizuk esan zidanak ('Kultura gutxitua gara, baina gutxizalea ere bai batzuetan, eta gutxieslea askotan') profetia da, benetan. Berri Txarrak-ek MTV-ko jaialdian jo izanaren ostean piztutako eztabaida da horren adibide: badirudi ez dugula ikasten. Debatea ez da bihurtzen euskararen ikusezintasuna nola bihurtu ikusgarri, aukera ona den San Mamesen jotzea. Debatea da Berri Txarrak gureak diren ala ez diren gureak, ez besterik"

(SUSTRAI COLINA, BERTSOLARI ETA KAZETARIA)

"Markos Gimeno Vesga palindromo bihurtu zaigu, atzekoz aurrera jarriz bere bitzta. Eta euskarak jokalarri aparta eta lagun bat galdu du. 'Hitzezperimentatzen' eta palindromotan osatzen zituen bere ikuskariak, euskarari errebueltaz ezinezkoak emanez, esanahiak aldrebestuz, publikoaren neuronak bihurtuz. Gaztelera eta euskara elkarrekin nahasiz elkarketa ezinezko bezain liluragarriak eginez: 'Leer es irakurrar'. Euskarazko palindromoak egiten zituen bere zerojasoa.com blogean, astelehenero palindromo ezkutua bilatzearena planteatuz. Eta bere 40 minutuko errezitaldian publikoa harrituta uzten zuen"


(JOXEMARI CARRERE, IPUIN-KONTALARIA)

"Euskara ez jakiteko eskubidea' aldarrikatu zuen duela zenbait urte idazle batek. Eskaera bitxia, inondik ere. Eta hor ere aplikatuko bagenu simetria? Zer ez ote liokete leporatuko 'gatzelania ez jakiteko eskubidea' aldarrikatuko lukeen euskal idazle bati? Denok gaude euskararen alde, hura erdigunean kokatzen ez dugun bitartean. Izan ere, harrotzea denean kontua askoz ere erosoago zaigu hizkuntzarik ez duen kultura batez harrotzea. Ez da kasualitatea eskultura eta sukaldaritza izatea nazioartean geure marka saltzeko gehien erabili direnak. Eta ia beti gatzelaniaz lanean bihurtu dira izar eskultoreak eta sukaldariak"

(HARKAITZ CANO, IDAZLEA)

## Bixar agurtuko dabe Markos Gimeno Ermuan

Aurreko asteko barixakuan hil zan Markos Gimeno Vesga palindromo egillia eta PAM taldeko baxu jotzaillia. Sormenerako gaitasun haundikua, inguruak alaittu eta pentsatzeko dohaia be bazekan gure artian batez be palindromuen munduan barneratzeko aukeria emon zeskun Markosek. Hainbat arlotan jardun eban oin dala 44 urte jaixotako ermuarrak eta euskarazko #hitzokei hitz-jokua asmatu eban Twitterren eta @Zerorajasoia izan da azken urtitan Twitterren erabilli izan daben erabiltzaillie izena. Azken atari horretan landatutakuetatik



**Markos Gimeno Vesga**

**AGUR EKITALDIA**

Abenduaren 15ean, larunbata, 18:00etan Ermuan

**esanikerruzegibat labegizurrtekinase**

“Skizopoziks” errezitala eta liburua be sortu zittuan. Puto Amoak Matematiketan (PAM) taldiaren azken diskuan palindromogillien hitzak dittuen “Ezimize najan” abestia dago. Bixar egingo detse azken agurra Ermua jaioterrian, 18:00etan hasiko dan ekitaldixan.

## “Hedabideak eta Faxismoaren zuriketa” tertulixia egingo da etzi

Domeka arratsaldian, 18:00etan, kafe-tertulixia egingo dabe Bilgunean (Bista Eder, 2). “Hedabideak eta Faxismoaren zuriketa” izenburuari jarraituta, gaixan adituak diran Jonathan Martinez eta Bernat Castrok jardungo dabe berbetan. Sarrera libria izango da, gaixarekin interesa daken guztiendako.



Bernat Castro

## Roberto Lakidain eibartarra RTVE-ko presidentia izateko 20 hautagaixen artian

Diego Carcedo RTVE-ko Adituen Batzordien presidentiak hedabide publikuaren presidentia izateko 20 hautagaixen zerrendia jakiñarazi dau aste honetan eta hautagaixetako bat Roberto Lakidain Zabalza eibartarra da. 101 lagunek aurkeztu eban RTVE-ko presidente izateko hautagaixa eta, hiru hillebeteko tartian hautagaixak modu anonimuan baloratu ondoren, puntu gehixen lortu dittuen 20 lagunak aukeratu dittue. Lakidain RTVE-ren Albistegixen Kontseilluko kidia izan zan sorreran, 2008. urtian, eta TVE-ko batzordekide izendatu eban. 1900an hasi zan biharrian TVEn, erredaktore moduan lehelengo eta albistegixetako eta ediziño buru gero. Gaiñera, telebista kazetari-zako irakaslia da Sevillako CEADEn.



## Atzerrixan biharrian trebatzeko Cruz Irasuegui bekap aurkeztu dittue

Astelehenian aurkeztu zittuen Cruz Irasuegui bekap Eibarko Udalak eta Armerixa Eskolako Ikasle Ohien alkartiak. Ekitaldixan Alberto Albistegi Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Berrikuntza sailleko ziñegotzixa, Natividad Garcia Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkarteko ordezkarixa, Mikel Larrañaga SD Eibar Fundaziñoeko presidenteordia eta Josu Alkain Eibarko La Caixako zuzendarixak hartu eban

parte. Aste honetan aurkeztutakua titulua lortu barri daben ikaslieri zuzendutako internazionaliziño proiektua da, Armerixa Eskolaren eskutik sortutakua, eta asmua bertako partaide diran enpresari-xuen eskakizuneri erantzuna emotia da. Beka eskuratzen daben ikasliak atzerrixan esperientzia profesionala garatzeko aukeria izango dabe, gitxienez 6 hillebeteko tartian.



## M<sup>a</sup> IDOIA IRCIO EZQUER

I. Urteurrena: 2017-XII-13

“Maite zaitugu”

ETXEKOAK





## 8.743-ari egokitu jako ...eta kitto!ren Gabonetako otarra

Eguazten eguardixan zozketatu eban ...eta kitto! Euskara Elkarteak Gabonetako otarra, El Corte Inglesian, eta 2.000 euroko balioa dakan sarixa 8.743 zenbakixari egokitu jako. Irabazliak abenduaren 27ra arteko epia (egun hori barne) izango dau ...eta kitto!-ra deittu (943200918), idatzi (elkartea@etakitto.eus) edo juateko (Urkizu, 11 solairuar-

tea). Epe horren barruan saridunik agertu ezian, lehen ordezkua (10.257) jaso ko leuke sarixa (abenduaren 28tik urtarrillaren 12ra). Badaezpada bigarren ordezkua (2.912) –urtarrillaren 13tik 28ra– eta hirugarren ordezkua (5.833) –urtarrillaren 29tik otsailaren 13ra– be etara zittuen. Eskerrik asko rifak erositta lagun- du deskuzuen guztieri!

## Merkataritzako ikasliak BEC-n

Uni Eibar-Ermua BHI-ko Nazioarteko Merkataritzako Lanbide Heziketako ikasliak BEC-en egon dira, simulatutako enpresen IX. azokan. Azaldu dabenez, "35 ikastetxek egin dogu bat eta gure ikastetxiak 34 salmenta eta 30 erosketak egin zittuan. Topaketia oso aberasgarria begittandu jaku". Amaieran diplomía jaso eben.



## autuan

### GABONAK ETA DOLUA

Martitzenian Gabonak eta doluaren inguruko taillarra egingo dabe Eibarko Minbiziaren Aurrakako Alkartian (Ardantza, 11). Iñaki Peña medikuak zuzendutako 'Aulki Hutsak' dokumentala emongo dabe, 17:30xetan. Hildakuen senidien testigantzak jasotzen dittu dokumentalak eta, proiektiñua amaittu eta jarraixan, zuzendarixak berak dinamizatuko dau dolua hizpide izango daben solasaldixa. Parte hartzeko interesa dakenak astelehenerako emon biharko dabe izena, 943 20 24 94 telefono zenbakixan.

### JOSTAILU BILKETIA

Eibarko Gazte Sozialistak, Gurutze Gorrixarekin alkarlanian, jostailu bilketia antolatu dau gaurko. Arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara jasoko dittue premiñia daken umieri Gabonetan banatzeko jostailuak, Untzagan ipiñiko daben karpan. Jostailuak emoten dabeneri, eskerrak emoteko, txokolatía emongo detse.

**1964 ESTUDIO**

PROIEKTUAK  
ERREFORMAK  
GREMIOAK  
ALTZARIAK  
SUKALDEAK

**Finantziazioa**

Jardiñeta, 14 behea . EIBAR . Tfnoa. 656 75 64 85 . 1964.virginia@gmail.com . wwwwestudio1964.com



**IDURRE IRIONDO**

## “Hamaika desio utopiarako” liburuari buruzko solasaldixa

Ibon Muñoa Arizmendiarieta preso eibartarrak “Hamaika desio utopiarako”, bere 5. bertso-olerki bilduma emon dau argitara, Ateramiñeren eskutik. Kordobako espetxian sortutako 141 bertso osatzen dabe liburua eta horren inguruan berba egituko, datorren asterako solasaldixa antolatu dabe. Egueñian izango da, 19:00etan Arrate Kultur Elkartean eta Leire Narbaiza, Asier Serrano eta Antxon Narbaiza gonbidatu dittue. Bakotxak liburua-aren inguruko hausnarketa laburra egingo dau eta, jarraixan, juandako guztien artian solasaldixa burutuko da. Liburuaren aurkezpena, barriz, hillaren 27xan izango da, 19:00etan Toribio Etxebarrian. Aurreratu dabenez, “ekitaldixan ez dira faltako bideo emanaldi, bertso musikatu eta jolas desberdiñak, adin guztien gozamenerako”. Liburua 12 eurotan erosi leike.



## Bizikidetza eta Aniztasun Udal Plana aurkeztuko dabe

Datorren egueñian, 19:00etan aurkeztuko dabe Portalean (ikas-taro gelan) “2018-2022ko Bizikidetza eta Aniztasun Udal Plana”. Eibarko Udala-Aniztasun kulturala atalak eta Ikuspegik (Ikuspegi-Immigrazioaren Euskal Behatokia) antolatu eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen daben ekitaldi-

xan Maribel Vaquero, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bizikidetza eta Giza Eskubidetako zuzendarixak, Idoia Sarasketa Gizartekintza ziñegotzixak, Gorka Moreno Ikuspegi-ko zuzendarixak eta Andrea Ruiz antropologo eta inmigraziño eta kulturarteko kudeaketan adituak hartuko dabe parte.

## Eibar-Saharakuak liburu azokia zabalduko dabe asteburuan

Eibar-Sahara alkartekuak erabillittako liburuazokia ipiñiko dau asteburuan. Oinguan, baiña, barixakutik hasiko dira Untzagan liburuak merke-merke (euro bat, 3 euro eta 5 eurotan) saltzen. Gaur 18:00etatik 21:00etara bittartian zabalduko dabe azokia, bixar 11:00etatik 20:00etara eta domekan 11:00etatik 14:00etara. Horrekin batera, 4-14 urte bittarteko haurrendako zozketia antolatu dabe: parte hartzeko aldamenian ikusten dozuen marrazkixa koloreztatu egin biharko dabe (marrazkixak azokan banatuko dittue) eta domekan, 12:30xetan izango da zozketia.



## Garaguneko erabiltzaillien eskulanak salgai

Goienetxe fundaziñuaren Garagunekuak eguaztenian postua ipiñi eben Untzagan, euren eskulanak erakutsi eta saltzeko. Goiz osuan egon ziran Garagunian egitten dittuen eskulanak saltzen, tartian gabonetako apaingarri ugari. Edozelan be, interesa dakanak zuzenian jua leike Garagunera (Ardantza kalia, 2), as-telehenetik barixakura, arratsaldeko 16:00etatik 17:00etara.



Hainbat alkartek antolatutako manifestaziñuak urtego dau bixar eguerdixan Untzagatik

## Pensiño duin eta publikuen aldeko manifestaziñua

Untzaga pentsiodun plataformak, Biztu alkartiak, AGUIJUPENS Debabarrenak eta Eibarko Duintasuna alkartiak deittuta, bixar pensiño duin eta publikuen aldeko manifestaziñua egingo da, 12:00xetan Untzagatik abiatuta.



## Lagun Taldekuen San Andres azokia

Lagun Taldea osatzen dabena primeran ospatu zittuen Sanandresak, euren eskulanekin azoka berezixa osatuta. Egindako biharrarekin pozarren geldittu ziran, eta horretarako arrazoirik ez jakuen falta. Zorionak artistak!

## Sinki kuadrillakuak 70 urtiak ospatzen

Erretratuan ikusten ditzuzuenak Sinki kuadrillakuak dira, umetako lagunak kuadrilla sortu ebela 70 urte pasau dirala ospatzeko eguaztenian Untzaga soziedadian egindako bazkarixan. Lagun gitxi batzuk falta diran arren, aspaldiko partez talde politta alkartu zan eta eguna umore onian pasau eben.



Zauden lekuan zaudela,  
jarraitu beti bezain artista,  
Markos!



**BESARKADA ESTU BAT**  
FAMILIA ETA GERTUKOEI

**ehbildu**  
EIBAR

## ANTONIO ALBERDI ATXA (2018-XII-8)

**Familiaren izenean,  
ESKERRIK BEROENA gure  
nahigabeen lagundu  
diguzuen guztioi  
eta hileta-elizkizunera  
joan zinetenoi.**





Iñaki Igarzabal Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearen presidentea, Idoia Sarasqueta Eibarko Udaleko Gizartekintza sailburua, Iñaki Korta CAF-eko prebentzio zerbitzuaren mediku arduraduna eta Javier Muguruza (Niceto Muguruzaren biloba), liburuaren aurkezpen ekitaldian.

## Niceto Muguruza medikuaren liburua berrargitaratu dute

Javier Muguruza, Niceto Muguruzaren bilobak azaldu zuenez, bere aitxitxari buruz dagoen informazio guztia Antxon Narbaizak egindako lanari esker da. Hain zuzen ere, orain dela 10 urte Ego Ibarra batzordeak "Muguruza aita-semeak" liburua argitaratu zuen Antxon Narbaizaren eskutik. Javierrek azaldu zuenez, "nire aitxitxak Zaragozan ikasi zuen medikuntza eta doktoretza Madrilan egin zuen. Tuberkulosian espezializatu zen, eta Eibarrera etorri zenean higiene eta prebentzio lanean hasi zen. Ziriako Agirrerren ekimenari esker, garai hartan guztiz berria zen "Laboratorio de Higiene" sortu zuten eta bertan hasi zen lanean. Elikagaien eta uraren kalitatearen kontrola egiten zuten". Medikuntza gaietan aritzeaz gain, Niceto Muguruza XX. mende hasierako Eibar hartan "saltsa guztietan" zegoen: bizitza sozial eta politikoa guztiz sartuta zegoen, arte mundua oso ondo ezagutzen zuten eta herriko elkarte guztietan hartzen zuten parte.

"El jardín-galería de convalecientes" delakoaren sorreran ere berebiziko garrantzia izan zuen Niceto Muguruza medikuak. Nicetok 1908an emandako hitzaldi batean planteatu zuen proiektua eta 1910. urtean eraiki zen Jardinetan kalean, gaur egun Institutua dagoen lekuan. Sasoi hartan, etxe-

bitzen osasungarritasunik ezak arazo larriak eragiten zituen eta inoiz sendatzen ez ziren gaixotasunak zeuden. Horregatik "leku hori oso aproposa zen gaixoentzako, aire garbiz eta naturaz inguratuta igarotzen zuten eguna". Han, Jardinetan, egon zen Nicetoren omenezko monolitoa, ondoren Sakunen eta gaur egun Bidebarrietan dago. Nicetoren seme batek, Javier Muguruza Alberdik, aitaren bidea jarraitu zuen eta pediatria izan zen urte askoan Eibarren.

Nicetok gauza asko egin zituen, baina oso gazte hil zen, 38 urterekin. Bere bilobak azaldu zuenez, "1920ko apirilaren 4an nire aitxitxa Jazinto Olabe eta Inazio Anituarekin Ondarrura joan zen egunpasa. Sidetar batean joan ziren, eta bueltan Markinatik etortzea erabaki zuten. San Miguel gainean istripua izan zuten. Nire aitxitxa bertan hil zen".

### Bere garaiari aurreratuta

Liburuaren aurkezpenean, Iñaki Korta Beasaingo CAF prebentzio zerbitzuaren arduradunak Muguruza mediku eibartarraren lana goraiatu zuen: "Ohore bat da Nicetoren liburua irakurtzea. Umiltasun handiz ikusi dut gaur egun berritza ematen ditugun gaiak orain dela 100 urte pentsatutakoak direla. Laneko Osasunean dihar-

Niceto Muguruza Larriña (1882-1920) Eibarko Udal Laboratorioaren zuzendaria izan zen 1912tik hil arte. 1918an "Nociones generales de higiene del obrero siderúrgico" liburua argitaratu zuen. Lehenengo edizio haren mendeurrena betetzen den honetan, Lan Medikuntzaren Euskal Elkarteak liburua berriro eman du argitara, liburuko atal bakoitzari buruzko iruzkinekin. Liburuaren aurkezpena Eibarko Udaletxeko Batzar Aretoan egin zen azaroaren 28an. Ekitaldi xume eta hunkigarriak jende asko erakarri zuen. Medikuntzan, laneko osasunean eta prebentzioan eta historian adituak diren profesionalak bat egin zuten Niceto Muguruzaren ahaideekin.

dugun guztiontzat oso lan interesgarria da". Niceto Muguruzak Armeria Eskolan eman zituen hitzaldiek osatzen dute liburua. Muguruzak ezinbestekoa ikusi zuen ikasleekin prebentzioa eta higienari buruzko nozioak partekatzea. Beraz, 1916-17 ikasturtean zehar, zapatu arratsaldeetan, guztira 20 hitzaldi-solasaldi eman zituen Armeria Eskolan. Hurrengo urtean, 1918an, liburua kaleratu zen. "20 hitzaldiak sei esparrutan kategorizatuta daude, eta gaur egun existitzen direnekin alderatu daitezke. Higiena eta ergonomia; gizarte-determinatzaileak; lan medikuntza eta batez ere industria siderurgikoren hautsek eragindako gaixotasunak (tuberkulosiarekin zeukan harreman zuzena), alkoholismoaren arazoa...". Osasunaren ikuspegi integrala zeukan Nicetok, "argi esaten zuen enpresetako nagusiei zegokiela lan istripuen prebentzioa, eta Estatuari tutelatzea. Beste kapitulu batean 'Caja de Socorro' eta Mutualitateen beharren onuren inguruan egiten du berba, eta liburuaren azken zatian lan istripuak gertatu ezker, horiek nola gestionatu behar diren azaltzen du. Azken finean, Nicetok garai hartan oso ondo zekien zertaz hitz egiten zuten laneko osasunari dagokionean eta bide-erakusle izan da".



Hamaika egun berezi bizi izan genituen azaroaren 23tik abenduaren 3ra. Euskaraldiak hizkuntza ohiturak astindu zituen egun horietan eta, garrantzitsuena, bere eragina nabari da oraindik. 200.000 lagunetik gora hartu zuten parte Euskaraldian (Eibarren 3.000 lagunetik gora) eta are gehiago izan dira egun horietan jasotako bizipenak. Elena Laka Euskalzaleen Topaguneko presidentea oso pozik dago Euskaraldia prestatzen egindako lanarekin eta ariketa sozialak izan duen erantzunarekin.



**ELENA LAKA** (Topaguneko presidentea):

## “Euskal Herriko historian inoiz ikusi ez duguna ikusi dugu Euskaraldiarekin”

**- Orain dela egun gutxi amaitu da Euskaraldia, baina nolako balorazioa egiten duzue?**

Orain arte egindako bidearen balorazioa eginez gero, gozamina izan da. Euskal Herri osoan oso gutxitan aurkitu dugu horrelako elkarlana, erakundeena eta gizarte eragileena. Batak bestearen premia daukagu. Guztion artean egindako bidea eta ariketa sozial batean 200.000 lagun inplikatzeko lortzea, konpromiso batekin, pasada bat da. Euskal Herri osoan egin den ariketa izan da eta azpimarratzekoa da hori. Bestetik, ariketa sozialari berari buruz ez daukagu balorazio zehatzik, baina orain arte ikusi dugunaren eta jasotzen ari garen iritzien arabera oso esperientzia polita izan da. Arrakasta izan nahi genuen, jende askok izena ematea, baina ez genekien zer gertatuko zen eta lurralde osoko 200.000 lagun baino gehiagok izena ematea izugarria izan da. Modu pertsonalean, inguruan gertatu zaizkidan bost-sei istorioak erakutsi didate posible dela inguru batzuetan hizkuntza ohiturak aldatzea. Eta nire moduan jende asko. Batzuei zaila egin zaie, euren inguruaren arabera, baina normala da. Hori ez da porrota, bizi dugun errealitatea da. Oro har legitimazioa lortu dugu, euskaldu-

nok euskeraz berba egiteko orduan orain arte ez genuen ikusgaitasuna. Euskeraz bizi daitekeela adierazten duen aterki handi bat edo giroa sortu da. Euskerazko espazioak zabaldu dira.

**- ‘Klika’ da 2019ko Korrikaren goiburua. Euskaraldian parte hartu dutenek ere ‘klik’ egin dute?**

Korrikak ez dio Euskaraldiari jarraipen bat eman nahi modu esplizituan, baina faktore asko batu dira euskeraren erabileraren aldeko mugimendua sortzeko. Aspaldidanik gabiltza euskeraren alde egiten, baina lortu dugun legitimazioarekin eta adostasunarekin ‘klik’ egitea lortu dugu.

**- Denbora aurrera joan ahala Euskaraldiarekin lortutako indarra galtzeko beldurra dago?**

Normalena da hemendik bi hilabetera 200.000 lagunek ez eustea hamaika egun hauetako jardunari, baina Lasarten egin-

dako esperientziak erakusten du ariketa egin eta hilabete batzuetara portzentaje altu batek eutsi egiten diola hizkuntza ohituraren aldaketari. Euskaraldian parte hartu dutenen %40k egun hauetan izan dituzten bi aldaketetatik bati eusten badiote, adibidez, lorpen handia izango litzateke.

**- Euskal Herri osoko erakunde eta eragileen elkarlana goraiatu duzu. Guztiok batera egin behar dugu tira?**

Hona ez gara bapatean iritsi, urteetako lana izan da. Gizartea aldatu da, belaunaldiak ere, giro politikoan aldaketa egon da eta konfiantza pertsonalak eragina izan du. Indarrak batuta aurrera egin behar dugula ikusi dugu, ez dago beste modurik, eta orain da momentua. Bide honek, ondo aprobetxatzen jakiten badugu, ez du balioko euskeraren erabilerarako bakarrik, hainbat kontu politikorako ere balioko du.

**- Historian mugarrira ezarri du Euskaraldiak?**

Bai, bide bat markatu du. Lortu dugunaz jabetze hutsak gozamina sorrarazten dit. Euskal Herri osoko erakunde eta eragileak batzea... Euskal Herriko historian inoiz ikusi ez duguna ikusi dugu Euskaraldiarekin. Eskuz esku egin dugu lan eta zoragarria izan da.

“Indarrak batuta egin behar dugu aurrera euskeraren erabileraren alde”

# Adama Thiam, Eibar apaintzen

Rufisquen jaio zen Adama Thiam, Senegalen, Dakarretik 25 kilometrotara. Kostako hiria, portu garrantzitsua eduki zuen iraganean, baina Senegalgo hiriburuaren hazkundeak Rufisqueko portuaren 'heriotza' ekarri zuen eta, portuaren aktibitatea ordezkatzeko zuen industria handi eta turismo barik, herrialdeko lau komuna historikoetatik txiroena da gaur egun. Handik 4.500 kilometrotara bizi da Adama, Eibarren, eta herriko landareak zaintzen dituen maitasun berarekin egiten du berba bere jaioterriari buruz.

## Bitxigilea Senegalen

Gurasoekin eta anai-arrebekin bizi zen Adama Rufisquen. Bera da anai nagusia eta, ondorioz, berari tokatzen zitzaion familiari laguntzeko lan egitea. *"Denbora gutxian joan ahal izan nintzen eskolara, 14 urterekin lanean hasi behar izan nintzelako"*. Aita bitxigilea zen eta urrezko eta zilarrezko bitxiak egiten lagundu zion Adamak. Gogorra zen, baina are gogorragoa izan zen gerokoa. *"Aita hil egin zen eta neure gain hartu behar izan nuen familiarentzat dirua lortzeko ardura"*.

## Meridan, Durangon eta Katalunian

Senegalgo egoera kontuan izanda, Adamak Europara etortzea erabaki zuen. 2005. urtea zen eta Merida izan zen lehenengo geralekua. *"Astebete egin nuen han eta Durangora etorri nintzen gero, familiako bat bizi zelako han"*. Durango utzi eta Bartzelonara joan zen. *"Laranja baten ibili nintzen lanean. Oso gogorra izan zen!"*. Gero, pinuak mozten hasi zen Ka-



Eibarko landareak maitasunez zaintzen dihardu Adama. Ekhi Belar

talunian bertan eta kale-garbitzaile moduan ere ibili zen, kontratua amaitu zitzaion arte.

## Lorezain Eibarren

Eibarrera etorri zen Katalunia utzi zue-nean, 2009. urtearen amaieran. *"Tabernetan egin nuen lan, sukaldari-laguntzailea izan nintzen, pinuak mozten ere ibili nintzen... Eta hemen gustora nengoenez, gelditzea erabaki nuen"*. Gustora zegoen Eibarren, baina ingurukoak ere pozik zeuden Adamarekin. *"Udalak hilabete batzuetarako lana eskaini zidan eta, lana amaitu eta gero, gehiagotan deitu didate"*. Lorezaina da Adama, gure herriko apaintzailea.

**"Santena gueureumena baye fall yi"**

**"Eskerrik asko, lagunok"**

## Euskera ikasteko gogoz

Ez da erreza zure jaioterria eta familia atzean utzi eta toki ezezagun batean bizitza berria hasten saiatzea; baina hizkuntza ezagutzen ez baduzu, are gogorragoa da. *"Meridara ailegatu nintzenean ez nuen tutik ulertzen"*. Europara etorri zenetik gogor egin du lan Adamak eta gazteleraz oso ondo egiten du gaur egun. *"Euskeraz ere badakizkit pare bat berba, baina hizkuntza ikasi beharra daukat, euskeraz egiten jakitea oso garrantzitsua dela uste dudalako"*.

## Semea Donostian

Senegalen utzi duen familiak kezkatzen du batez ere Adama. Eurei laguntzeko egiten du lan eta orain dela gutxi ikusi ahal izan ditu berriz ere, oporretan joan zelako. *"Senegalgo egoera ez da onena, baina osasuntsu daude eta hori da garrantzitsuena"*. Euskal Herrian ere badauka familia, Donostian bizi baita bere semea. *"Denbora librea daukadanean berarekin egoten saiatzen naiz. Foballa gustatzen zaigu eta, bera Errealeko zalea denez, Eibarko zalea egiteko konbentzitzen saiatzen ari naiz"*, dio Adamak barrezka.



Eguaztenian bete ziran 50 urte Eibarko Unibertsitate Laboralian lehen klasiak emoten hasi zirala, ikasturtiaren hasiera "ofiziala" egun batzuk geruago, 1968ko abenduaren 17xan izan bazan be. Mende Erdiko ibilbidia gogoratzeko asmuarekin, bestiak beste liburua kaleratzeko biharrian dabilta hainbat lagun eta 50. urteurrenerako logotipua be aukeratu dabe aste honetan. Asmo horrekin egin daben lehiaketako irabazlia Aitor Casaña Angoitia izan da eta berak sortu daben irudixa erabiliko dabe urteurrenaren inguruan egitten dittuen jarduera eta bestelako guztietan.



## Mende Erdixa ospatzeko gertu

**U**nibertsitate Laboralaren 50. urteurrenaren inguruan biharrian diharduan batzordeko kidiak diran Oihana Aristondo Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako Eibar ataleko koordinatzaillia, Oskar Gisasola Uni BHIko zuzendarixa, Juan Aldai Egoitza Zentruko zuzendarixa, Juan Barahona irakaslia eta Miguel Arroitauregi ikasle eta irakasle ohia alkartu dittugu, Eibarko Unibertsitate Laboralak mende Erdiko ibilbidia bete dabela eta, horren aitzakixarekin sorreria zelakua izan zan gogoratu eta gaur egungo martxa ezagutzeko asmuarekin.

Eibarko Unibertsitate Laboralak ikasliendako atiak zabaldu eta klasiak emoten hasi zirala 50 urte aste honetan bete dira. Izan be, "Centro Técnico Laboral de Eibar" izeneko ikastetxiak 1968ko azaruaren 12xan ekin zetsan lehen ikasturtiari, 244 ikaslerekin.

Barahonak azalduakuaeren arabera, "Eibarren moduan beste hainbat tokitan zabaldu zittuen Unibertsitate Laboralak frankismuan sortu ziran. Hain zuzen be orduko Gobernuo Lan Ministeritzaren eskutik egin ziran, bihargiñen seme-alabendako, ikasteko aukeria emoteko asmuarekin, ho-

lan gero bizimodua etara ahal izateko. Diñuenez, Frankismuan Lan Ministrua izan zan Jose Antonio Giron de Velascok Belgikako ereduari kopixau zetsan. Espaiñian holako 21 ikastetxe zabaldu zittuen danera eta Eibarkua zabaltzen hamaikagarrena izan zan". Itxuria, Francoren gobernuaren asmua heziketa integraleko ikastetxe-sare bat eraikitzia zan, oiñarrizko hezkuntzatik hasi eta ingeniariitza teknikoraiño ailegaur arte. Unibertsitate Laboralak, normalian, hezkuntza-mailla diferentiak izaten zittuen, esparru bakar batian bilduta. Ikasle gehixenak internuak izaten ziran, baiña herriko ikasliendako toki gitxi batzuk gordetzen zittuen. Holako ereduari segidu zetsen Eibarren be.

Klasiak hasi eta egun gitxira, 1968ko abenduaren 17xan izan zan inauguraziñua eta, ekitaldi horretan "Jesus Romeo orduko Lan Ministrua ministrua eta enparau guztiak" hartu eben parte.

### Eraikitzeo toki billa

Baiña egun "haundixa" ailegaur baiño lehen, Unibertsidade Laborala Eibarren zabaltzeo bida luzia eta nekeza izan zan. Idatziz jasota daguez, 1963an bazebizen horretarako ideiak lantzen. Barahonak esandakuaren arabera, "Armerixa Eskolan gaixaren inguruan berba egitteko billera batian 40 lagun alkartu ziran eta hor pentsau zan Eibarko Unibertsitate Laborala

Foto Plazaola 1971-72 - SJ1127



*Beste toki batzuetan eraiki zittuen Unibertsitate Laboralekin konparautu, Eibarkua txikixa da. Halanda be, ikasteko toki asko ez eze, barnetegixa, aretua, jangela eta kirola praktikatzeko instalaziñuetan ez dau parekorik euki geure inguruan.*



*egingo zala eta nun eraikiko zan tokixa topatzeko biharrian hasiko zirala. Asmo horrekin zortzi laguneko komisiñua eratu eben, buruan Peli Egaña eguala". Izan be, Unibertsidade Laborala eraikitzekeo gastua Lan Ministerixuak bere gain hartu arren, horretarako terrenuak Udalak pagau edo lortu bihar zittuan, hori zan bete biharreko baldintza.*

Hasierako asmua Unibertsitatea Txaltxa Zelaixan egittia zan eta udaletxera plenora be eruan eben proposamena, baita aldeko botua emon be. Baiña orduan sasoian Txaltxa Zelaixan bi eskola eguzen eta, jakiña, Unibertsitatea eraiki ahal izateko ezinbestian horrek itxi eta eraitsi bihar zittuen. Horregaittik, asmo horren barri izan bezin laster, eskola horretako maisu-maestrak kontrako eritzixa azaldu zetsen arduraduneri. Idatzi batian bildu zittuen kontra egoteko euren argumentuak: "Bestiak beste, itxi nahi zittuen eskola horretako ikasliak ume txikixak izanda, horrek herri-

*ko erdigunetik kanpokaldera bidaltziak lo-gikarik ez zekala esaten eben, errezagua zala koskortutako ikasliak aldentzia ume txikixak baiño".*

Oztopoak oztopo, atzera bota eben ikastetxia Txaltxa Zelaixan egittekeo asmua eta, horren osteko dokumentuetan jasota dagueanez, Ministruak alkatari Azittaiñen egittekeo esaten detsa. Hortxe be lurra eskurtzeko arazuak izan zittuan Udalak eta hurrengo proposamena Kaskarreguan eraikitzekeo izan zan. Barahonak diñuanetz, "hortxe udaleko arkitektuak zentzuz jokatu eban eta, ikusten zittuan arazuak zeintzuk ziran kontuan hartuta, toki hori be baztertu eben azkenian".

Hamaika negoziaziño, billera eta bu-ruhauste eta gero, gaur egungo tokixan, Olarreaga-Txarakua inguruan eraikitzia erabagi eben azkenian. Eta holan ekin zetsa-zen 1968ko abuztuan amaittu zittuen eraikuntza laneri.

Martxan ipiñi ebenian, Eibarko hezkuntza-esparruak 1.100 ikasle hartzeko kapazidadia zekan, horretako 900 interno gisa. Horretarako hiru ikasle-egoitza zittuan: Gorbea, Jaizkibel eta Urkiola. Inguruko ikasliendako gordetako plazak 200 ziran. Lehen ikasturtian, 244 ikasletik 36 baiño ez ziran Gipuzkoarrak. Hasierako hartan eskintzen ziran ikasketak, bestalde, batxil-lerra, elektronika eta ingeniari-tza teknika ziran (ingeniaritzan, makiña elektrikuak eta industria-elektronika espezialidadiak eguzen).

Espaiñan zabaldu zittuenen artian Eibarkua txikixenetakua izan arren, lehen urteko ikasle kopuruari begiratu gero haundiegixa ez ete zan pentsau leike. Baiña hurrengo urtietan gero eta ikasle gehixago hartzen juan ziran, dana betetzera aillegau arte. 1975-76 ikasturtian egon ziran ikasle gehixen: 1.324 ikasle danera, horretako 723 interno.

Ikasle horrek zittuen gastueri aurre egittekeo sistemía oso kostosua zan: "Gaur egunian Seguridade Soziala eta bestiak pagatzeko soldatetatik kentzen dabena, orduan sasoian Mutualidadiak hartzen



Foto Plazaola 1968 - SJ1044

*Peli Egañari egindako omenaldixa. Bera ei da Laborala Eibarren zabaltziaren "arduradun" nagusiña.*



## Lourdes Magunazelaia Gonzalez de Audikana

*(2018ko abenduaren 3an hil zen Bilbon, 60 urterekin)*

**"EZ NAU IZUTZEN NEGU HURBILAK UDA BETEZO BEROAN,  
 DAKIDALAKO IRAUTEN DUELA ORAINAK ERE GEROAN"**



**SENDIAK BIHOTZEZ ESKERTZEN DITU jasotako doluminak,  
 bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.**



Gaur egunian be barnetegiko gelak beteta dagoz ikasturtian zihar.



Ikasliak bizitza osua bertan egitteko moduko zerbitzuak eskintzen dittue.

eben, horrendako ziran bihargiñen apor-ta-ziñuak. Eta Mutualidade horrek egitten ze-tsen aurre Unibertsitate Laboraletako ikas-lien bekak eragiten eben gastuari. Urtiak juan urtiak etorri, gero eta Mutualidade gi-txiago eta, beraz, diru gitxiago eguan eta hasierako sistema hori ahultzen juan zan, 1979xan guztiz desagertu arte”.



**EIBARKO  
 UNIBERTSITATE  
 LABORALA**  
 1968 X 2018

**Aldaketa inportantiak**

Izan be, egitura eta antolaketari begira aldaketa haundixak euki dittu ikastetxiak. Sorreran Ingenieritza Tekniko Industriala eta Batxiller Tekniko Laborala eskintzen zit-tuan. 1971-72 ikasturtian ikasketa plan ba-rixa ezartziarekin batera BBB eta UBIko le-hen ikasliak ailegau ziran. 1973-74 ikas-turtian, barriz, Lanbide Heziketako Biga-rren Maillako ikasketak eskintzen hasi zi-ran, Elektronika eta Administrazio adarre-

tan. Baiña aldaketarik haundiña 1987xan izan eban: Eibarko Irakaskuntza Batera-tuen Ikastetxia, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailleko dekretuaren bittartez, Eibarko Hezkuntza Esparrua izatera pasau zan. Hezkuntza Esparruaren barruan Inge-niaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolia eguan batetik, bestetik BBB eta Lanbide Heziketarako ikastetxia eta, hirugarrenik, Egoitza Zentrua. Eta aurrerago, 1994an In-geniaritza Eskolia EHUUn integratuta geratu

zan eta LOGSE-rekin batera BBB eta Lan-bide Heziketarako ikastetxia IES Uni Eibar Ermua izatera pasau zan.

Gaur egunian 650 bat ikasle dagoz Uni-bertsitate Laboralian eta internuak 250 di-ra. 50. urteko batzordeko kidiak diñuenez, zalantza barik ikastetxiari izaera berezixa emoten detsana barnetegixa da: “Inge-niaritza ikasten dabenen portzentaje oso haundixa barnetegixan dago eta, alderan-tziz, barnetegiko ikasle asko ingeniari-tza-ko ikasliak dira. Horrek harreman oso be-rezixak sortzen dittu nahittanahiez”.

Eta, harreman berezixak aittatuta, Alca-la de Henareseko ikasle talde bat gogora ekarri dabe: “Aula 46 izenekuan, 43 ikas-leko taldetik 37k kontaktuan segitzen da-be eta 30 batek edo konfirmatu deskue ekaiñaren 15ian egingo dogun 50. Urteu-rreren ekitaldira etorriko dirala”.



**Funeraria-Ehorztetxe  
Mugica**

<p><b>EIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</b></p>	<p><b>ELGOIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</b></p>
<p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p>  <p><b>Bulegoa Bidebarrieta, 20</b></p>	
<p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b></p> <p><b>943 20 19 51</b> <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

# IMANOL UGARTEBURU IZETA

2018ko abenduaren  
 10ean hil zen,  
 71 urterekin





**“ZURE irribarre  
 eta samurtasuna  
 betirako izango dira  
 GURE ARTEAN”**

**-ETKEKOAK-**

**Familiaren izenean, ESKERRIK BEROENA**  
 gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi  
 eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.

**KALAKA GONZALEZ (atleta):****“Fondoko lasterketetan argi eduki behar duzu zer nahi duzun”**

14 urterekin, kirolari bikaina da Kalaka Gonzalez eibartarra. Bere lehenengo aukera eskubaloia izan bazen ere, orain dela gutxi atletismoa probatzea erabaki zuen. Harrezkero ibilbide oparoa egiten dihardu. Irungo Krosean hirugarren postua eskuratu berri du eta orain asteburu honetan Arraten egingo den Bolunburu krossa dauka buruan.

**- Eibarko Atletismo taldean gogor diharduzu azken aldian. Noiz hasi zinen kirol honekin?**

Orain dela gutxi hasi naiz, urte eta erdi gutxi gorabehera. Eskubaloian denbora gehiago daramat eta fondoa hartzeko eta probatu nahi nuelako hasi nintzen atletismoan. Hasieran entrenamenduak oso gogorak dira, eta gero zure gorputza ohi-tzen hasten da. Krosean Euskadi mailan konpetitzen egon nintzen aurreko denboraldian. Nire lehenengo krosak izan ziren eta nahiko ondo joan ziren.

**- Kirol biak uztartzea zaila gertatuko da momento batzuetan, ezta?**

Esan daiteke une honetan atletismoari gehiago ematen diodala, nahiz eta oraindik eskubaloiarekin jarritu. Batzuetan partiduak eta atletismo fograk batera izaten dira eta bata edo bestearen artean aukeratu behar izaten dut. Gipuzkoarekin Arandara joateko deitu zidaten orain dela gutxi eta bi egun eman nituen han. Batzuetan, azterketa garaietan batez ere, zaila da egiten da. Oraingoz ikasketekin ondo nabil, Beraz aurrera!

**- Irungo Krosean hirugarren geratu zara orain dela gutxi. Nola joan zen?**

Oso gogorra izan zen. Lasterketa guztian aurrean egon nintzen, baina azken momentuan, esprintean, indar gabe geratu nintzelako ez nintzen bigarren geratu. Bolunburun ahaleginduko naiz eurei irabazten.



**- Krossa ala pista nahiago?**

Ez dakit, egia esan. Orain dela gutxi ere Eibarren 3.000 metroko froga egin dut pistan eta hor ere ondo gelditu naiz, hirugarren postuan Gipuzkoa mailan. Erresistentzian, fondoan ondo moldatzen naiz. Atletismoko beste modalitate batzuk probatzen dihardut: altura jauzia asko gustatzen zait eta pertiga probatzea gustatuko litzaidake.

**- Zure erronkak zeintzuk dira?**

Oraingoz ondo pasatzea da nire asmoa. Eta, gero, markak hobetzea Espainiako txapelketetara joateko. Hobetzeko gehiago entrenatu behar dela esaten dit Inma Urkiola nire entrenatzaileak, eta arrazoia dauka. Bestalde, fondoa mentalki oso gogorra da eta garrantzitsua da jakitea egiten ari zarena gustatu egiten zaizula eta egiten diharduzun hori zuretzako dela.

**Pedro M<sup>a</sup> Garma Quintana**

2. URTEURRENA: 2016/XII/13

**Gure ondotik aldendu zinela bi urte bete direnean, zureganako gure maitasunak hor jarraitzen du. Ez ditugu inoiz ahaztuko zure ilusioa eta bizipoza.**

ZURE FAMILIA



## Gazteentzat Robotika tailerrak

IKASLEEK GABONETAN OPO-RRAK DITUZTELA APROBE-TXATUTA, Udalak robotikaren inguruko tailer teknologikoak antolatu ditu aurten ere, zientzia eta teknologiaren mundu ikusgarrian murgiltzeko gogoia duten gazteentzat. DBHko eta Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleentzat tailerrak izango dira eta izena emateko epea astelehenera arte egongo da zabalik Pegoran, Herritarren zerbitzurako bulegoan.

DBHko ikasleentzat egingo

den Robotika Unity-Maya 3D tailerra Indianokua gaztelekuan burutuko da, euskeraz, abenduaren 26, 27 eta 28an, goizeko 09:30etik 13:30era. Eta LHko ikasleentzat Robotika Slither EV3 tailerra egun eta ordutegi berean emango dute, baina kasu honetan tailerra Jazinto Olabeiko ludotekan burutuko da (hau ere euskeraz izango da). Ikastaroaren prezioa 30 eurokoa da Eibarren errolatuta daudenentzat eta 50 eurokoa, berriaz, Eibartik kanpokoentzat.



egingo dira Gabonetan

## Bihar arte eros daitezke Gazte Topagunerako bonoak Belekun

ERNAI ETA AITZINAK ANTOLATUTA DATORREN URTEKO APIRILEAN Lemoan ospatuko den Gazte Topagunerako lehen bonoak salgai ipini dituzte eta Eibarren bihar arte izango da eskuratzeko aukera, Beleko tabernan. Bonoak 45 euro balio du.

“Askatasun bulkadak independenziara!” goiburuak jantziko du 40. urteurrena beteko duen Gazte Topagunea eta, antolatzaileen berbetan, “lau egunez Lemoako herria aldarri, borroka, kolore, bizipoz eta doinuz beteko dugu milaka gaztek”. Aurreratu dutenez, “Gazte Topagunea inoizko bereziena eta ahaztezinena izango da, dudarik gabe. Milaka eta milaka gazte baturik, auzolanean eta autogestioan eraikiko dugu behatzekin ukitu nahiko genukeen utopiaren biharamuna. Lau egunez, Euskal Herria ardatz, munduko txoko desberdinetara luzatuko




dugu begirada. Aurtengo Gazte Topaguneak eskaintza anitz eta zabala izango du. Ez da faltako hitzaldi, mahai inguru, mintegi, formakuntza-tailer, kirol eta aisialdirako mugarik gabeko eskaintza anitza. Ezta Euskal Herriko nahiz nazioarteko musika talde desberdinez osaturiko festival erraldoia ere. Hainbat sorpresa ditugu jada esku artean. Bereztasun bezala, Gazte Topagunean Gazte Sortzaileen Plaza egongo da. Bertan, era askotariko diziplina kulturalak emango diote traza plazari. Hala nola, musikagintza, bertsolaritza, idazketa, marrazkigintza... Erakusketa-espazio, eztabaida-gune eta hausnarketarako eremua sortuko dugu gazte desberdinen artean”. Gazte Topaguneari buruzko informazio guztia gaztetopagunea.eus webgunean egongo da, baita sare sozialetan ere.

## IÑAKI LARRAÑAGA ARANEGUI

(I. URTEURRENA: 2017-XII-12)

*ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN.*

ETXEKOAK





eva perez de albeniz

## Gauzak

**Uda honetan gurasoen etxea saldu dugu eta anaia eta biok ordu dexente eman ditugu etxeko traste guztiak ateratzen.** Bertan jaio ginen eta gure haurtzaroko etxea izan den horretan urteen joan-etorrian zenbat gauza pilatu diren ikustekoa zen.

Eta orduan, han jo-ta-ke ari ginela, zer aurkitu eta hondartzan aldatzeko zaku bat. Marraduna. Askok zer den ere jakingo ez duzuen objektua. Burutik sartu eta gorputz osoa estaltzen duen zakua da, bainujantzi bustia kendu eta sikua jazteko erabiltzen zena, inork ezer ikusi ez zezan.

Zakua eskutan hartu eta burua berehala argazkiz bete zitzaidan: uda, Deba, Lekeitio, ama, lagunak, hainbeste gustatzen zitzaidan bikini marraduna... Hunkituta, berehala erabaki nuen zaku marraduna gorde egingo nuela. Baina, erabakia hartu bezain pronto, kalkuluak egiten hasi eta: non gorde behar dut nik hau? Eta zertarako, inoiz erabili behar ez badut?

Badakizue, burua eta bihotzaren arteko borroka hasi zen, praktikoa izango naiz edo emozioari egingo diot kasu?

Ba zaku hori gordetzea erabaki nuen. Baina zakuaren atzetik beste mila gauza, beste hainbat objektu agertzen joan ziren. Eta behin eta berriz erabaki berdina: gorde, eman, bota?

Iragana altxor bat da, gure sustraiak osatzen dituena, eta oraina eta geroa ganoraz bizitzeko behar dugun sostengua.

Ez daukat nire burua gauza materialei apego berezia dieten horietakotzat. Beti pentsatu dut gauza gutxiarekin hobeto bizi garela eta akumulatzeko joera horri barre egin diot.

Baina orain ikuspegia aldatu zait. Gauzak ez direlako objektu materialak soilik. Batzuetan gauzak iraganeko momentu zehatzei kateatuta dauzkagu eta, objektuari eusten diogun bitartean, iraganeko momentu hori beti gurekin egongo dela amesten dugu.

Eta iragana -gaur egun ospe txarra duen arren- gure bizitzaren erroa da. Freudek ez zuen batere lagundu bere iraganaren ikuspuntuarekin: ematen du atzean laga dugunak traumak eta konpondu gabeko uneak bakarrik utzi ahal dizkigula. Kargaz betetako motxila astunak. Eta gaur egungo coaching eta psikologia-korrante askok ere aurrera begiratzera behartzen gaituzte, edo oraina bete-bete bizitzera, atzean laga dugunari muzin eginda. Ni ez nago horrekin ados. Iragana altxor bat da, gure sustraiak osatzen dituena, eta oraina eta geroa ganoraz bizitzeko behar dugun sostengua.

Horregatik gorde dut hondartzako zakua, negu gogorrean gaudenean kajoitik atera eta uda eta amaren epeltasuna berriz sentitzeko.



iñaki zubillaga

## Rosendo, pa siempre

la hogei disko, ehundaka kontzertu. Bere uniformea: praka bakeroak eta kamiseta zuria, Stratocaster sorbaldan... eta egurra! Gitarran zigilua.

**Jaun-andreak: hilabete honetan, 2018 urtearekin batera, Rosendok musikari moduan bere bidaia amaituko du.** Urte osoan bira izugarria bete du madrildarrak, eta bost kontzertu berezirekin amaituko du bere esperientzia taula gainean. Zapatuan Euskal Herritik agurtuko da BEC aretoan, Barakaldon.

Rosendo Mercado Ruiz madrildarra 1954an jaio zen eta txikitatik ibili zen gitarra zahar batekin probaketetan. 1972an sartu zen bere lehen taldean, Fresa izenekoan (buzo arrosarekin jantzita dago argazki mitikoan). Taula gainean zuen indarrak atentzioa piztuzion une horretan Ñu talde berria ekoizten ari zen Jose Carlos Molinari. Eta Rosendorri disko bat grabatzeko lehenengo esperientzia 1976an etorri zitzaion, talde berri horrekin.

Aldi berean, Rory Gallagher-en diskoak entzun zituen eta liluratuta geratu zen irlandarrak zuen erakarpemailarekin. Soldadutzara joan aurretik, Fender Stratocaster gitarra baten lehenengo ordainketa egin zuen eta, handik aurrera, Rosendok bere gitarran izan du soinu kutsua, bere zigilua.

Soldadutza amaituta, Molinaren nagusitasunarekin topo egin zuen Rosendok eta, horri aurre egiteko, Ramiro Penas eta Chiqui Mariscal-ekin 1978an talde berria sortu zuen: Leño, guztientzako rock-erreferentzia izan dena estatuan. Hiru grabaketa, hiru torpedo: "Leño", "Más madera" eta "¡Corre, corre!". Baina dirurik ez... Diskoetxeak geratu ziren eskubide guztiekin eta denbora luzean egon zen grabatu barik, gainera. Total... Rosendo 1985ean berpiztu egin zen, bere karrera osoa gobernatzeko.

la hogei disko, ehundaka kontzertu... eta egiazko "campechanoa" izanik. Bere uniformea: praka bakeroak eta kamiseta zuria, Stratocaster sorbaldan... eta egurra!!! Hiru liburu daude bere bizitza eta, batipat, garai hartako musika industriako azpiegiturak ezagutzeko: "La sana intención. Conversaciones con Rosendo" (SGAE, 2003), "Maneras de vivir: Leño y el origen del rock urbano" (Kike Turrón y Kike Babas, 2013) y "Mil maneras de volver al hotel" (Rafa J. Vegas, 2018).

Zapatuan elkar ikusiko dugu?





# GABONETARAKO

erosketa **GIDA**

## TXUKUNA

**E. Garate, 1**  
943 82 13 08


- Barruko erropa eta pijamak (ume eta helduak)
- Emakumeen erreduktoreak (aukera handia)



## el vestidor

**Errebal, 14**

**688 81 14 34**



*Zorionak!*



*zorionak eta urte berri on!*

- Opariak egiteko aukerarik onena

**J. Etxebarria, 13**  
943 70 02 30

- Bono bereziak: Gabonetan opariak egiteko aukera bikaina



Bidebarrieta, 5 / Tel. 943 20 15 47 / 20600 EIBAR

**Bidebarrieta, 5**

**943 20 15 47**

## Ditare

36 urte zuekin



- Gizon eta emakumeendako barruko arropak
- Azpikogonak
- Mukizapiak
- Mertzeria
- Emakumeen bainujantziak
- Berezitasuna taila handitan!
- Pijamak

**Urkizu, 7**

**943 12 73 21**



**San Juan, 1**

**943 20 33 29**

- Landareak
- Zentru naturalak eta lehorrak
- Etxerako zerbitzua





*Zorionak!*



**GRATZINA** Zuloagatarren, 1  
943 82 15 77



**J. Etxeberria, 6**

**943 12 10 07**

- Ume eta gazte moda
- Otiak 16 urtera arte



**Zuloagatarren, 1 943 53 67 64**



*Zorionak!*



- Jostailu hezigarriak
- Haur ospakizunak
- Ludoteka-Bebeteka
- Tailerrak

[www.ludotekazorionak.com](http://www.ludotekazorionak.com)

**Urkizu, 3**  
**943 54 36 97**

**XARE**



**Ego Gain, 4 943 57 31 96**



*Zorionak  
eta urte  
berri on!*

- Ume eta gazteendako moda **Kopina**



**San Agustin, 3 943 20 41 81**



# Guby

**Birjiñape, 1**  
943 20 28 33  
**Zuloagatarren, 9**  
943 20 12 40

- Ehunak
- Etxerako osagarriak
- Pinturak

www.bagliettoeibar.com

## baglietto

**Errebal, 21**  
943 20 19 22



# Jauregui

**San Agustin, 4** 943 20 16 47



- Menajea
- Beira
- Opariak



**Bidebarrieta, 8**  
943 05 60 82

*Zorionak eta urte berri on!*



# klaus

- Denda
- Dekorazioa
- Erreformak
- Proiektuak

**Estaziño, 3**  
943 10 58 10



- Betaurrekoak eta opariak denondako

# umea

**Errebal, 16**  
943 20 31 64



**Ego-Gain, 2**  
943 70 14 08

**ZENTRAL**  
OPTIKA

- Emakumeendako erropa
- Umeendako oparitxoak
- Denetariko osagarriak

- Yoga eta Pilates
- Lagun Ezkukurako opariak
- Eibarko markak



**Blas Etxebarria, 1**  
943 84 93 10

**helmet house**  
CONCEPT STORE



**T. Etxebarria, 2**

688 68 16 04

**atelier11**  
CONCEPT STORE

dekorazioa  
\_diseinua\_  
**VINTAGE**  
komplementoak



*Zorionak!*

**MARAIIS**

- Konplementoak

**Zuloagatarren, 7**  
943 53 93 34



- Pastelak, "txikiak", pastak, rellenoak, bonboiak, tartak...
- Enkarguak etxera

**Bidebarrieta, 28** 943 20 79 73



Entzumen zerbitzu berria guztion eskura



**Zuloagatarren, 1** 943 20 65 35

**General Optica**

*Zorionak eta urte berri on!*

**GABON**

**zoriontsuak!!!**



## Eibar FT-ko bi talde nagusiek Ipuruan jokatuko dute asteburu honetan

Levanteren aurka aurreko domeka eguerdian launa berdindu eta gero, Mendilibarren taldeak Valentziako beste taldea hartuko du bihar Ipuruan jarraian jokatu duen bigarren jardunaldian. Saillapenean atzetik izan arren, asmo handiagoak dituzte Marcelinok prestatutakoek eta aurkari zailak izango dira eibartarrentzat. Partida 20:45ean hasiko da eta, Mendebaldeko Tribunaren obrak direla-eta, harpidedun izaera galdu dutenek 5 eurotan erosi ahal izango dituzte sarrerak partidurako. Tribuna eraikitzeko lanek diharduten bitartean klubak hainbat laguntza-mota eskainiko dizkie. Aldi berean, jarleku berrietara pasatu direnek T. Etxebarriako bulegotik pasatu daitezke karnet berria jasotzeko.


Bestalde, emakumezkoen lehen taldeak asteburu honetan liga jardunaldirik ez duenez, domeka goizean (11:30ean) lagunartekoa jokatu du Ipuruan Osasunaren aurka. Helburu solidarioarekin antolatutako neurketa ikustera doan bakoitzarengatik Eibar FT-k euro bat ipiniko du eta sarrera doan izango da. Aukera polita, beraz, goi mailako foballa ikusteko, talde biak 1. Mailara igotzeko borrokan sartuta daudelako 2. Maila Nazionalako euren multzoan: eibartarrak liderrak dira eta nafarrak laugarren daude (sei puntura, partidu bat gutxiagorekin).



## Bolunburu Oroigarria jokatu da etzi goizean

Gipuzkoako Koparen bigarren proba jokatu da domeka goizean Olabeko zelaietan, 10:30ean hasi eta hiru ordu luzatuko den kros jaialdian. Eibarko Klub Deportiboko atletismo batzordeak antolatuko duen Bolunburu Oroigarri Krosaren 68. edizioan, azken urteotako egitarauari jarraituta, bederatzi proba jokatu dira guztira, honako ordutegiarekin: 10:30ean 3 kilometro egingo dituzte 20 urtetik beheko emakumezkoek eta 16tik beheko eta master gizonezkoek; 10:55ean 2.800 metro osatuko dituzte 16 eta 18 urtetik beheko eta

master emakumezkoek; 11:15ean 23 urtetik azpiko eta absoluto mailako emakumezkoen hitzordua izango da, 18 eta 20 urtetik azpikoen gizonezkoekin batera, 5.100 metro izango duen lasterketan; eta 11:40ean 23 urtetik azpiko eta absoluto mailako gizonezkoen lasterketa jokatu da, 8 kilometro eta erdiko distantzian. Bi lasterketa nagusi horien ondoren, infantil mailako ordua iritsiko da: neskena 12:20an eta mutilena 12:35ean. Jarraian alebinek hartuko dute parte: neskek 12:50ean eta mutilek 13:05ean. Eta goiza amaitzeko, benjaminen elkarrekin jardungo dute, azken proban, 13:20ean. Antolatzailerik kirola eta atletismoa maite duten eibartar guztiak gonbidatu nahi dituzte horrelako jai handiaz gozatzera.



## ASTEBURUKO AGENDA

### FOBALLA

#### 1. Maila

Eibar - Valencia (bihar, 20:45)

#### 2. B Maila

Vitoria - Real Union (etzi, 17:00)

#### Ohorezko Erregional Maila

Eibar - Aretxabaleta (bihar, 18:00)

#### 1. Erregionala

Aloña Mendi - Urki (bihar, 18:00)

Eibartarrak - Zarautz (etzi, 17:30)

#### JUBENILAK

#### Ohorezko Maila Nazionala

Santutxu - Eibar (bihar, 12:45)

#### Euskal Liga

Añorga - Eibar B (bihar, 18:00)

#### KADETEAK

#### Euskal Liga

Eibar - Romo (bihar, 15:45)

### FOBALL-ZALETUA

Slow XOK - Bar Areto (bihar, 09:00)

JMR Erreformak - Chic (bihar, 10:30)

Bar Txoko - Larragest (bihar, 12:00)

Los Paisanos - Durango (etzi, 09:00)

Ipur - Azkena Adahi (etzi, 10:30)

Feredu - La Jara (etzi, 12:00)

### ESKUBALOA

#### 1. Nazional Maila

Somos Eibar - Ereintza (bihar, 19:00)

#### Emakumeen Gipuzkoako Txapelketa

Leizaran - Eibar Eskubaloia (bihar, 17:00)

#### Gipuzkoako 1. Maila

Ormaiztegi - Haritza (bihar, 18:30)

### ERRUGBIA

#### Ohorezko B Maila

Durango - Avia Eibar (bihar, 18:00)

#### Emakumezkoen Euskal Liga

Avia Eibar - Marzola Rioja (etzi)

#### Euskadiko 2. Erregionala

Avia Eibar - Urbealde B (etzi)

### SASKIBALOA

#### Gipuzkoako 3. Maila

Avia Saskibaloia - Zalburdi (bihar, 18:15)

### WATERPOLOA

#### Euskal Herriko 1. Maila

Larraina - Urbat IKE (etzi, 15:35)


#### Emakumeen Euskal Herriko 1. Maila

Urbat IKE - Larraina (etzi, 16:45)

### AGENDA OSOA GURE WEB ORRIAN


## JOSE MILIKUA BALZOLA

(2018-XII-10)



*“ZURE irribarre eta samurtasuna  
betirako izango dira GURE ARTEAN”*

SEMEAREN LAGUNAK



## Herriko igerilariek markak egiten dihardute asteburuero

Eibar Igerixan-eko ia guztiek hobetu zituzten euren markak jokatuak azken liga jardunaldietan. Horrela, Azpeitian jokatuak alebin mailakoan 11 igerilarik hartu zuten parte, 200 metro libre eta 100 metro tximeletako pro-

betan. Eta Bergarako Agorro-sinen jokatuak Neguko Lurraldeko ligan klubeko 18 igerilari onenatarikoei jardun zuten; euren denborak hobetzeaz gain, hainbat lehen postu eskuratu zituzten eta erreleboetan garaile izan ziren.



## Jiu-jitsuko gerriko beltza 2. Dan-a lortzeko prestatzen

Aurreko asteko zubia aprobetxatuta, Kalamuako lau ordezkari Madrilgo Federazioak Villaviciosa de Odonen antolatutako probetan izan ziren, jiu-jitsuko gerriko beltza 2. Dan-a eskuratzeko azterketa prestatzen. Ander Iturriaga, Ane Rojo, Arrate Jorge eta Jon Arteaga izango dira azterketa horri ekingo diotenak. Asteburu honetan, bestalde, klubeko beste kirolari batzuk Tolosako Usabal kiroldegira joango dira, judoko Euskal Federazioak antolatutako judo-teknika ikastaroetan parte hartzeko.

## Eibar Rugbyk 22na berdindu zuen Valladoliden lehen itzuliaren azken partiduan

Zapore gazi-gozaarekin bueltatu ziren Valladolidetik Avia Eibar Rugbyko lehen taldekoek saikapean aurretik duten VRAC B-rekin 22na berdindu eta gero; modu horretan, saikapean atzetik jarraitzen dute eibartarrek, Gaztela-Leongoekoengandik bi puntura. Eibar Rugby indartsu hasi zen, markagailuan aurrea hartzeko Gaizkak sartutako zigor-kolpe bati esker. Hortik aurrera, eta ondo antolatutako jokoari esker, Valladolidekoak gehiago izan ziren eta eibartarrei haien erasoei aurre egitea egokitu zitzaizen. Berdinketa horrekin Eibar Rugbyk 9. postuan jarraitzen du.



Valladoliden maila eman zuen Eibar Rugbyko talde nagusiak.

## Deportiboko kadete mailako pilota bikotea finalaren bila

Denboraldi bikaina dihardu egiten Azkargorta eta Caminak osatutako bikoteak Gipuzkoako txapelketan eta atzo Astelenan jokatu beharreko partiduan euren mailako finala jokatzeko txartela zuten jokoan. Tolosako Amundarain-Gabirondo bikotearen aurkako partidua egun bat aurreratu eta, ohikoa denez barixakuan izan beharrean, atzo arratsaldera aurreratu zuten "Astelenan gaur beste zeozer antolatu dutelako".



## Txirrindularitza lizentziak berritzen hasiko dira urtarrilean

Eibarko Txirrindularitza Elkarteak urtarrilean eta otsailean berrituko ditu zikloturisten



EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA

lizentzia horiek. Eguaztenero 19:00etatik 20:00etara zabalduko dituzte bulegoak, aipatutako euskal (115 euro) eta estatu mailako (120 euro) lizentziak berritzeko. Informazio gehiago Gipuzkoako Federazioaren orrian: [www.gtxe.eus](http://www.gtxe.eus)

## San Andres torneo bikaina egin zuten Ipuruako gimnastek

Zazpi eskualdetatik etorritako 16 klubuen parte-hartzea izan zuen Eibarko Torneoaren XX. edizioak. Abenduaren 1ean jokaturako jardunaldian giro berezia bizi izan zen Ipurua kiroldegian, "bildu ziren 200dik gora gimnasten familiarako eta lagunekin, batez ere". Hor izan ziren Madril, Aragoi, Valladolid, Toledo, Errioxa, Nafarroa eta EAETik etorritako gimnasia taldeak.

Lortutako emaitzei buruz, Ipuruako kadete oinarrizko taldeak urrezkoa irabazi zuen, beste askotan moduan azken denboraldian. Ainhoa Bizkarra, Izaro Altuna, Arrate Baskaran, Maider Diez eta Ana Portuk



Kadete mailako taldeak urrezko beste domina bat irabazi zuen.

osaturako boskoteak hain berea duen ariketa egin zuen, bost arorekin, emaitza bikainarekin. Eta urrezkoa eskuratu zuen Nahia Gonzalezek ere, azken honek bakarkako ariketan eta aroarekin. Oinarri mai-

lako gimnasta horiek apirilean amaituko den denboraldi berria prestatzen hasi dira.

Zilarrezko domina lortu zuten, bestalde, Ipuruako senior eta junior mailako taldeek: seniorretan Vallecasken irabazi


zuen eta Torrejon sailkatu zen hirugarren. Juniorretan Donosti Kluba nagusitu zen eta brontzekoa Alcobendas Chamartinentzat izan zen.

Aipatutakoez gain, nabarmentzekoa da Vallecasken eta Sakoneta moduko 1. Mailako taldeek egindako lana, batez ere madrildarrek erakutsitako originaltasuna eta erritmoa, mailloten diseinua ahaztu barik. Gizonezkoen lana ikusteko aukera ere izan zen lehenengo aldiz; hor Eneko Lambea Espainiako txapeldunak urrezkoa bereganatu zuen. Atzotik eta domekara arte, taldekako Espainiako txapela jokatzeko dihardute Iruñean Ipuruakoek.

## Takuaiko ordezkariak postu onak lortu dituzte txakur-krosetan

Bi frentetan banatu dira azken asteburuotan Eibarko Takuai Mushing Team-eko ordezkariak. Andoni Isusik Galiziako Boboras herrian jokatu zuen Espainiako Kopan hartu zuen parte, txakur-kros eta patin modalitateetan. "Luna" txakurrarekin bosgarren izan zen txakur-kro-

sean eta 6. "Tyson"ekin patinean. Andoni Mayok, bestalde, Euskadiko txakur-kros ligako 3. jardunaldian 23. postuan amaitu zuen "Zeus"-ekin; aurreko asteburuan 19. postua eskuratu zuen Etxebarriko Xtrem-ean. Hurrengo hitzordua Errioxako Arnedillon izango dute.



**IMANOL UGARTEBURU IZETA** (2018-XII-10)

*ESKERRIK ASKO, IMANOL, zure bizitzan langileen alde egindakoarengatik.*



Agur eta ohore.  
Eibarko ELA



*"Gustora egon gaitun/gaituk, MARKOS, hire ondoan"*

**ALIENDE sendia**



Harri artean pasa du azken urte eta erdia Juan Antonio Palacios argazkilari eibartarrak. Harri-jasotzearekin liluratuta, herri-kirol honen izarrei erretratuak atera dizkie eta harriaren indarra islatu du argazkietan. Horren emaitza da 'Harria' liburua eta gaurtik urtarilaren 5era arte Portaleak jasoko duen erakusketa. Liburua Amazonen salgai jartzeko asmoa dauka Palaciosek, baina Juan Manuel Uriak Erreterian duen liburudendan, 'El Gallo de Oro' editorialaren webgunean eta [www.juananoniopalacios.com](http://www.juananoniopalacios.com) orrian ere egongo da salgai, besteak beste.

**JUAN ANTONIO PALACIOS**  
 (argazkilaria):

## “Jainkoen antza hartzen diet harri-jasotzaileei”

**- Orain dela hamar urte sortu zitzaizun proiektu hau gauzatzeko ideia. Nola?**

San Isidro egun batean, maiatzaren 15ean, Arratera joan nintzen eta hainbat argazki atera nituen herri-kirolak egiten zituzten bitartean. Asmo handi barik ateratako argazkiak ziren, beste barik ateratakoak, baina editatzen hasi nintzenean herri kirolen inguruan zerbait egin zitekeela pentsatu nuen, mamia zegoela. Ideia horri jarraituz argazkiak egiten jarraitu nuen, eta beste herri batzuetan egiten ziren erakustaldietara eta txapelketetara joan nintzen. Harrian zentratzen hasi nintzen, monografiko bat baino gehiago egiteko aukera ematen zidala uste nuelako. Hala ere, konturatu nintzen erakustaldietan ez zegoela nik nahi nuen argia, iragarki eta kartel asko zegoela, eta niri hori ez zitzaidan interesatzen. Hondo beltza, harri-jasotzailea eta harria agertzea nahi nuen, besterik ez. Buruari mila buelta eman ondoren, harri-jasotzaileekin berba egin nuen eta harritikietan (eurek

entrenatzen duten tokietan) argazki-saioak egitea adostu genuen. Flash batzuk eta hondo beltz bat erosi (nahiko prekarioak), estudio merkea prestatu eta horrela hasi nintzen.

**- Zergatik harri-jasotzea eta ez beste herri-kirolen bat?**

Harriak duen indarrak eta harri-jasotzaileek harria altxatzerakoan duten teknikak atentzioa eman zidaten. Harria altxatzeko momentua izoztu nahi nuen, postura ia ezinezko horiek; eta baita harri-jasotzaileen espresioak ere, egiten duten esfortzua.

**- Nolako prozesua jarraitu duzu proiektua gauzatzeko?**

Izeta, Ostolaza, Zelai eta horrelako harri-jasotzaileek eskolak dituzte eta beste harri-jasotzaile batzuk entrenatzen dituzte. Horrek dira harritikoiak. Eurekin zita egiten nuen eta, estudio inprobisatu ondoren (ahal den moduan, toki askorik ez dutelako hainbeste harriren artean), harriak jasotzen ateratzen nizkien argazkiak.

**- Ideia orain dela hamar urte sortu zen, baina zenbat den-**

**- bora behar izan duzu proiektua burutzeko?**

Urte eta erdi ibili naiz horretan, baina lasai hartu dut.

**- Eta zein da emaitza?**

Gaur Portalean zabalduko den erakusketa egitea zen nire asmo nagusia. Argazki handiak erabili nahi nituen, nahiko indartsuak. Zazpi argazki handi egongo dira eta berrogei izango dira guztira. Baina erakusketaz gain liburu bat ere argitaratu dut. Ehun argazki ditu eta Juan Manuel Uriaren ehun testu poetiko. Erretereriako mutila da Uria, Santos Iriarte 'Errekar-tetxo' harri-jasotzailearen iloba, eta 'Harria' kaleratu zuen 2016an, harriaren edertasunaren inguruan 130 testu poetiko jasotzen dituen liburu. Kasualitatez eduki nuen beraren berri, izan ere, nik zerbait ezberdina egin nahi nuen eta harriaren inguruan zer egin den bilatzen nenbilenean aurkitu nuen bere lana. Poesiak inoiz ez dit atentzioa eman, inoiz landu ez dudana zerbait delako agian, baina Uriaren testuek nire argazkiek esan nahi zutenarekin bat egi-


ten zuten guztiz. Berarekin kontaktuan jarri nintzen eta bere testuak erakusketan erabiltzeko baimena eskatu nion. Ideia bikaina iruditu zitzaion eta gero, liburua egiteko ideia azaldu nionean, elkarlanean aritzeko proposamena egin zidan. Zoragarria izan da, proiektua aberastu duelako.

**- Iñaki Perurenak ere hainbat olerki eskaini zizkion harriari. Poesia egiteko elementu aproposa da harria?**

Ez dakit, harriak zerbait berezia dauka. Perurenak monologo ederra dauka harriaren inguruan. Bere semeari argazkiak atera nahi izan nizkion, izan ere, 2018an aktibo zeuden harri-jasotzaileei bakarrik atera dizkiet argazkiak, baina azkenean ezin izan genuen ezer egin.


**- Argazkiak zuri-beltzean daude. Zergatik?**

Hasieratik argi eduki dudana zerbait izan da. Zuri-beltzak indar gehiago ematen diola uste dut. Ez dut harri-jasotzaileen historia, marka eta lorpenei buruzko liburu bat egin nahi izan,






“Harria altxatzeko momentua izoztu nahi nuen”



Joseba Ostolaza



Udane Ostolaza



Aimar Irigoien

argazki-liburu bat baizik. Harriaren eta harri-jasotzaileen estetika eta kontzeptuari buruzko proiektua da.

**- Harri-jasotzaileek nola hartu zuten argazkiak ateratzeko proposamena?**

Asko gustatu zaie esperientzia hau. Oso pozik daude eta niretzat ere zoragarria izan da eurekin lan egitea. Asko kolaboratu dute eta pazientzia handia eduki dute. Niregatik bakarrik harria altxatzea eta harria eskuan dutela nik postura bat edo beste egiteko eskatzea... Eskerrak eman behar dizkiet.

**- Nolakoa da harri-jasotzaileen mundua?**

Oso giro ona dago euren artean. Lehian daudenean ere denak elkartzen dira eta harreman onari eusten diote. Hori bai, lehian daudenean denek nahi dute irabazi.

**- Handiak, indartsuak... euskal superheroiak dira harri-jasotzaileak?**

Jainkoen antza hartzen diet. Izugarritzko pisua duten harriak jasotzea demasa da niretzat.

**- Harri-jasotzaileek emaitza ikusi ahal izan dute?**

Ostolazak eta Izetak bai. As-

ko gustatu zaie. Harri-jasotzaile bakoitzari liburu bana oparituko diet, baina argazki-saioak egin nienean hainbat argazki oparitu nizkien. Eurek ez dituzte horrelako argazkirik eta asko eskeretzen dute.

**- Nolakoa izango da gaurko aurkezpena?**

Aurkezpen laburra egingo dugu, ez dugu txapa emango. Koldo Aldalur ETB-ko kazetariarekin kontaktuan jarri naiz aurkezpena egin dezan eta, gero, liburuaren nondik norakoak kontatuko ditut. Proiektu honetan lagundu nauten

guztiei eskerrak eman behar dizkiet.

**- Erakusketaz gain, beste gauzarik egiteko asmoa daukazu?**

Erakusketan 40 argazki egongo dira eta liburuan 60 gehiago, baina 800 argazki inguru egin behar izan ditut proiektu honetarako. Liburutik kanpo geratu diren argazki batzuk ditut editatuta eta ikusentzunezko bat egitea pentsatu dut. Laguntzeko, baten batek irakurritako testua sartuko nuke (Ernesto Barrutiarekin jarri naiz kontaktuan).

# Gabonetako OTARRA



**Eskerrik asko Eibarko herriari!!!**

**Lortutako dirua EIBARREN  
EUSKARAREN ALDE erabiliko dugu**

**Eskerrik asko zuei ere,  
emandako laguntzarengatik:**

Isasi, Bolintxo eta Arriaundi okindegiak,  
Mujika eta Otegui harategiak,  
Echetto eta Arriola prentsa-salmenta,  
AEK eta Udal Euskaltegia,  
Kultu, Zubi Gain, Urkizu, Guridi eta Depor tabernak  
Maria Ospitxal (Calbeton) eta Izadi Ioradenda

**2.000 euroko otarra**

# 08.743

**zenbakiarentzat**

**abenduaren 27rako**

ez bada irabazlea aurkezten, ordezkioak sartuko dira jokoan, orden honi jarraituz:


**10.257** abenduaren 28tik  
urtarrilaren 12ra

**02.912** urtarrilaren 13tik  
urtarrilaren 28ra

**05.833** urtarrilaren 29tik  
otsailaren 13ra



**PERIKO IRIONDO:** "Argazkian irtetzeko prest".



Nerea Gomez en aktore izateko nahiak Madrilerara eramane zuten eta bere gogoan asetzen ari da eszenatoki gainean. Azaroaren 2an Iker Vesga eibartarrak sortutako *Dando el cante* antzezlanaren estreinatua zuten La Escalera de Jacob antzokian eta publikoaren harrera ezin hobea izan du. Nerea Gomez *La Nere* da monologo honetan eta denetarik egiten du (antzeztu, abestu...). Umorerik ez da falta. Momentuz Madrilen bakarrik ikusi ahal izango dugu ikuskizuna, baina Gomezek gustora antzeztuko luke bere jaioterrian.

**NEREA GOMEZ (aktorea):**

## “La Nere antiheroia da, gizajoa, baina ez du ilusiorik galtzen”

**- Orain dela hilabete estreinatua zenuten *Dando el cante*. Zer moduz joan da lehen hilabetea?**

Bikain! Gutxienez urtarilerara arte egongo da ikusgai La Escalera de Jacob antzokian. Oso gustora gabiltza ikuskizun honekin eta, publikoaren harrera ikusita, ezin gara kexatu.

**- Nolako ikuskizuna da?**

La Nere da komedia musikal honen pertsonaia nagusia eta bere abenturak kontatzen dira bertan. Bere bizitzako helburu nagusia abeslaria izatea da, musikari profesionala izatea, eta musikaren mundu konplikatuan bizi duen bidaia kontatzen dugu bertan. Txikitan gitarra jotzen ikasten du mojekin eta hazten doan heinean denetarik ezbeharrak gertatzen zaizkio. Operación Triunfo saioaren castingera aurkeztu da, baina ez dute hautatu. Hala ere, ez du etsitzen eta bere helburua lortu arte ekiten du.

**- Nahiz eta ezbehar eta oztopoz beteriko ibilbidea kontatu, umorea da nagusi?**

La Nere antiheroia da, gizajoa, baina gertatzen zaiona gertatzen zaiola ez du ilusiorik galtzen eta borrokan jarraitzen du. Positiboa da eta, zerbait gaizki irteten bazaio, beste bide batetik ekiten du. Bizitzaren ikuspegi oso berezia duen pertsonaia da. Oso pentsaera ezberdina dauka eta estoiztade handiz jasotzen ditu kolpe guztiak. Guzti hau umore kutsua duten abestekin nahasten dugu ikuskizunean.

**- Pertsonaiak La Nere izena edukiz, kutsu autobiografikoa dauka ikuskizunak?**

Pasarte autobiografikoak dituen monologoa da. Berari gertatzen zaizkion gauza batzuk niri gertatu zaizkit bizitza errealean, baina muturrera eramane ditugu, fikziora. Pailazokeriak dira nagusi, baina emakumearen irudia aldarrikatzen dugu, batez ere gizartearen konbentzioetatik kanpo dago-

en emakumearena. Hau da, gizarteak markatutako edertasun kanonetatik kanpo dagoen emakumearena, adin batetik gora dagoena, eta abar.

**- Zer moduz moldatzen zara bakar-bakarrik eszenatoki gainean?**

Oso gogorra da, baina oso atsegingarria. Monologo bat egiten dudane lehen aldian eta urduritasun-eszenikoak beldur-eszeniko bihurtzen dira. Dena den, gozamena da. Ikuskizun hau oso erronka pertsonala da, orain dela denbora asko neukan hau egiteko gogoan eta gozamena da gauzatu ahal izatea, behingoz.

**- Iker Vesga eibartarra da ikuskizunaren egilea. Gustora sentitzen zara herrikide baten lana antzeztu?**

Nerabegarotik ezagutzen dut Iker, Narruzko Zezen-en genbiltzanetik. Talentu handiko gizona da eta idazteko dohain

zoragarria dauka. Urteak neraman monologoaren testua idazteko konbentzitzen eta azkenean lortu nuen. Gozamezko testua da, opari bat.

**- Noiztik zaude Madrilen?**

18 urte daramatzat hemen. Eibarren ikasketak amaitu eta gero ez nuen lanik aurkitzen eta, Madrilen lagun batzuk ni-tuenek, lan bila etorri nintzen. Antzerkia ere ikasi nahi nuen eta, lana aurkitu ondoren, antzeztu-erakunde batean hasi nintzen.

**- Ikuskizun arrakastatsuan ari zara lanean orain, baina nolako izan da bidea horra iritsi arte?**

Oso bide zaila izan da eta ikuskizunak hori islatzen du. Lanbide artistikoak iraupen-lasterketak bezalakoak dira eta gogorra da. Beste lanbide batzuk eduki behar dituzu hilabete amaierara iristeko, ilusio eta energia asko inbertitu behar duzu, eta kasu askotan autoekoizpena jo behar duzu. Gero, eszenatoki gainera igotzen zara eta merezi izaten du.

“Lanbide artistikoak iraupen-lasterketak bezalakoak dira, eta gogorra da”



**LUIS CASTELLS**  
(historialaria)

*- Toribio Etxebarriaren 'Viaje por el país de los recuerdos' hiru aldiz irakurri duzula esan izan duzu eta beti ikasi duzula zerbait berria. Zer ikasi duzu azken irakurketa honetan?*

Irakurketa bakoitza begirada ezberdinarekin egin ohi dugu. 1980. urtetik nabil irakaskuntzan eta, liburua lehen aldiz irakurri nuenean, historia sozialean zentratu nintzen batez ere (Eibarko langile mugimendua, bere jatorria...). Bigarren irakurketan eguneroko elementuei jarri nien arreta, jendearen bizimodua nolakoa zen ikusteko. Eta hirugarrenean Toribio Etxebarriaren pertsonaiaren sakontasun pertsonalari erreparatu diot. Oso pertsonaia gomendagarria da. Bere kabuz ikasi zuen, bere kabuz hazi zen, eta nahiz eta unibertsitate ikasketarik ez eduki, irakurtzeko eta ezagutza handitzeko gogo handia zuen. Gainera, oinarri etiko, moral eta pertsonal sakonak zituen. Liburuaren irakurketa humanista hau ez nuen aurreko irakurketetan hain argi ikusi.

Ego Ibarrek Toribio Etxebarriaren 'Viaje por el país de los recuerdos' liburuaren edizio berri bat argitaratuko du. Etxebarriaren liburuaren lehen edizioaren 50. urteurrenean publikatuko da edizio berria (lehenengoa Mexikon argitaratu zen 1968an eta bigarrena 1990an Donostian) eta Luis Castells historialariak idatzi du hitzaurrea. Abenduaren 19an, eguaztena, egingo da liburuaren aurkezpena 19:30ean udaletxeko pleno aretoan.

## "Oinarri etiko, moral eta pertsonal sakonak zituen Toribio Etxebarriak"

*- Liburua irakurri ez dutenek, zergatik irakurri beharko lukete?*

Eibartarrentzat derrigorrezko irakurketa izan beharko litzateke, momentu historiko garrantzitsu batean Eibarko bizitza nolakoa zen kontatzen duelako. Sasoi hartan eman zen Eibarko eztanda ekonomikoa armagintza industriari esker eta hiria guztiz eraldatu zen. Gainera, oso liburu entretenigarria da. Ordu hartako Eibarko bizitzaren deskripzio atsegina egiten du eta historia interesatzen zaigun guztiontzat da egokia. Eibar hiri berezia zen sasoi hartan, erlauntz-industrialia eta jarduera ekonomiko indartsuarekin.

*- Liburuak 50 urte bete ditu. Nola zaharkitu da?*

Liburua ez da zaharkitu eta goraipatzekoa da. Eguneroko bizitza islatzen du eta interes gehien daukan korronte historikoa da hori, xehetasun anitzen bitartez islatzen duelako orduko gizartea. Gizarte horren argazki osoa ematen digu. Bestetik, liburuan batzen den diskurtsoa

ere ez da zaharkitu. Testuak ikuspegi politiko eta pertsonala dauka. Ezkerreko pertsonak ereduagarriak izan behar diren ideia batzen du. Gainera, mezu politikoak gaurkotasuna dauka. Toribio Etxebarriak islatzen duen sozialismoa oso irekia da, biztanle guztiei zuzendua klase interesen gainetik, eta interes handiko itzulpen politikoak dauka horrek.

*- Zuretzat zer izan da liburuaren hitzaurrea idaztea?*

Demaseko poztasuna eman dit. Toribio Etxebarria beti interesatu zait, lilurgarria da, eta poztasun intelektual aparta izan da berataz jardutea. Donostiarra banaiz ere, liburuan jorratzen den Eibarko sasoi hura oso interesgarria da. Gainera, Begoña Azpirik eta Ego Ibarrek demaseko lana egiten dute eta polita da eurekin elkarlanean aritzea. Eibarrek daukan tradizio liberal eta sozialistaren aurrean tolerante eta plural sentiarazten naiz, eta gozamina da kulturako gaiak lantzen dituzten lagun eibartarrekin lan egitea.

## Musika Eskolako soinujoleak Arrasateko Akordeoi Lehiaketan

Juan Bautista Gisasola Musika Eskolan Marisol Arrillagarekin soinua ikasten ari diren ikasleak Arrasaten egon ziren aurreko asteburuan, zapatuan, Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkarteak antolatzen duen Arrasateko Akordeoi Lehiaketen barruan egin zen Gipuzkoa XXXI. Jaialdian parte hartzen. Horrez gain, bezperan Aita Menni ospitalean eta Abaroa erretiratu eta pentsiodunen elkartearen kontzertu bana eman zuten.

## Deporreko argazkilarien lanak Portalean ikusgai daude

Urtarrilaren 5era arte egongo da ikusgai "Paisaia" izenburuko argazki-erakusketa Portalean, martitzetik domekara, 18:30etik 20:30era. Klub Deportiboko Argazki Taldeko kideen eskutik urtero egiten den erakusketa kolektiboan taldeko hainbat kideren lanak ikusteko aukera dago.





## Olentzero Zapatuko ipuinean

Bihar arratsaldean, 18:00etan umeen liburutegian hasiko den "Olentzero maitea" ipuin-kontaketa saioarekin esango dio agur aurten Zapatuko Ipuinak, datorren urtera arte. Biharko saioan Leire Apikak (Leire Basarratek) ipuin berezia kontatuko die umeei. Izan ere, Olentzeroari gutuna idazterakoan agertzen diren zalantzak eta espero diren opariak azalduko dira Olentzero protagonista izango duten ipuinetan.



## "Comunicado de muerte" etzi

Banarte Antzerki Taldeak sari garrantzitsuak irabazi dituen "Comunicado de muerte" antzezlanaren aurkezpena taularatuko du Untzagako jubilatuen egunetan, domeka arratsaldean, 18:00etatik aurrera. Rafa Herce idatzi duen lana benetako gertakarietan oinarrituta dago eta ardatza 1974an Barzelonan, kartzelan exekutatuta zuten Salvador Puig Antich anarkistaren eta funtzionario baten arteko adiskidetasuna da. Antzezleak Mikel Uriguena Ruiz eta Rafa Herce dira.



## Orozen erakusketa Topalekuan

Arrate Kultur Elkartearen erakusketa aretoan Esteban Oroz artista eibartarraren margolanen erakusketa ikus daiteke egunotan. Artistak azaldutakoaren arabera, garai ezberdinetako koadroak ipini ditu ikusgai eta, teknikari dagokionez ere, olioak zein bestelako teknikekin egindakoak bildu ditu erakusketarako. Hilaren 23ra arte egongo da zabalik, asteleheneetik barixakura 19:00etatik 21:00etara eta asteburuetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.

## Sostoa Abesbatzaren emanaldiak


Sostoa Abesbatzak agenda bete-betearekin esango dio agur urteari. Mirengu Plazaolaren zuzendaritzapean, hiru kontzertu emango ditu abenduan. Horietako lehena bihar izango da, Mañarian, 19:30ean Jasokundeko Andre Mariaren elizan. Elkartruke emanaldian beste bi abesbatzarekin batera abestuko dute eibartarrek: 12 ahots zurik osatzen duten Zamudioko ganbera abesbatzarekin, Iratxe Gezuragak zuzenduta, eta beste 12 ahots zurik osatutako Mañariko Kirikiño abesbatzarekin, Itxaso Arrizabalagak zuzenduta. Abenduaren 21ean, berriz, San Andres elizan Gabonetako kontzertua eskainiko du Sostoa, 20:30etik aurrera. Eta hilaren 23an Usartza txistulari taldearekin batera jardungo du abesbatzak, 12:00etan udaletxeko arkupeetan.



## Olentzero eta Maridomingi

Bihar arratsaldeko 18:00etan Olentzero eta Maridomingi El Corte Inglesean egongo dira, gerturatzeko diren ume guztiei harrera egiteko prest. Ekitaldia dendaren sarrera nagusian, beheko solairuan izango da.

## Bertso-trama hilaren 26an



Hankamotxak bertso-eskolakoek bertso-trama antolatu dute abenduaren 26rako, Beleko tabernan, 19:00etan. Uxue Alberdi, Beñat Gaztelumendi eta Manu Goigona arituko dira kantuan eta tramaren gidaria Jokin Bergara izango da.

## Bihar ailegatuko da Eibarrera Gipuzkoan Gazte Tour

Gipuzkoan musika eta arte eszenikoen inguruan hainbat ekimen biltzen dituen Gipuzkoan Gazte Tour programa aurkeztu zuten orain dela egun batzuk Fernando San Martin Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteriako zuzendariak, Patricia Arrizabalaga Gazteria saileko zinegotziak eta Asier Lopez de Viñaspre Haur eta Gazteria Ko-ordinatzaileak. Gipuzkoako Foru Aldundiak beste hainbat eragilerekin elkarlanean garatzen duen programa 12 urtetik 25 urtera bitarteko gazteentzat pentsatuta dago eta, esandakoaren arabera, "helburu nagusia



nerabe eta gazteei euren gustokoa den kultur programazioa eskaintzea da, beti ere ikuskizunaren parte senti daitezen ahalaginduz. Horretarako, sare sozialen bitartez zein gaztelekuetan sondeo modukoa egiten ibili gara, gazteek euren gustoko artistak aukeratzeko tarte izan zezaten". Biharko emanaldia lehen edizio honetako azkena izango da. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera Parrapas, Bago!az-eko protagonisten, Twin Melody eta DJ Txurruren esku-tik musikak beteko du Astelena frontoia. Sarrerak 5 euro balio du.

## Argentinako esperientziarekin pozarren bueltatu da Palacin



Aste honetan itzuli da Argentinatik Pedro Palacin musikari eibarra, urrian Coliseoan Andres de Eiguren orkestrarekin estreinatu zuen Francisco Madinaren "Gitarra eta soka orkestrarako erlijio-musikako kontzertua" arrakasta handiarekin han eskaini eta gero. Palacin Buenos Aires eta La Platan egon da eta, kontzertua zuzentzeaz gain, Madinari buruzko hitzaldiak ere eman ditu. Orkestra zuzendariaren berbetan, "Buenos Airesen 1877an inauguratu zuten 'Laurak Bat' Euskal Etxe-

an egon nintzen, hango orkestrako musikariak zuzentzen. Maila handiko musikariak osatzen dute orkestra eta Madinaren obra eta nik egindako moldaketa asko gustatu zitzaizien, denek zoriondu ninduten. Eta La Platan, berriz, Unibertsitateari egindako donazioari zor zaion Musika Instrumentuen Museoan jo genuen". Azken honetan, zorionak ez ezik diploma ere eman zioten. Batean zein bestean berriz bueltatzeko gonbidapena egin diotela eta, pozarren itzuli da.

## Rosario Bagliettoren margoak ikusgai Untzagako jubilatuetxean

Domekara arte egongo da Rosario Bagliettoren "Reproducción ovárica y de las flores" izenburuko margo-erakusketa Untzagako jubilatuetxean ikusteko aukera. Gaur 19:15etik 21:15era zabalduko dute eta bihar eta etzi, berriz, 12:00etatik 14:00etara.



Etzi itxiko dute Bagliettoren margo erakusketa.



Mariano Lukek gidatu zuen Akebaik antolatutako urteko azken berbaldia.

## Hiztun berrien bizipenak "Hamaika Berbalditan"

Akebai plataformak sortutako 'Hamaika Berbaldi' ekimenaren barruan, urteko azken berbaldia egin zuten martitzenean udaletxeko patioan. "Euskaldun berriak betiko berri?" izenburuko saioan M<sup>a</sup> Jesus Martin, Mohamed-Fadel Taleb Mohamed, Sara Lamas eta Alina Ivan-ek euskalduntze prozesuan bitzako esperientziak kontatu zituzten Mariano Lukek gidatu zuen solasaldian.



### Anaut taldearen kontzertua ERMUAN

Bihar, 20:00etatik aurrera, Madrilgo Anaut taldeak blues power show-a aurkeztuko du Ermuko Lobiano kultur etxean. Aurtun "Hello there" izeneko estudioko euren hirugarren albuma kaleratu dute. 2013an "140" eta 2016an "Time goes on" kaleratutako ondotik, oraingoan "nahasketa perfektua" bilatu izan dute, rock-ari gerturatzeaz gain. Taldeak lau kide ditu: Alberto Anaut (ahotsa eta gitarrak), Gabriel Casanova (teklatuak), Javier Geras (baxu elektrikoa eta koroak) eta Javier "Skunk" Gomez (batera eta koroak). Gaur egun, Morgan, Aurora & The Betrayers edota Julian Maesorekin, *Amerikako Musikaren* arloan gehien nabarmendu direnen artean dago Madrilgo laukotea.



### Fibrosi kistikoaren alde igerian ELGOIBARREN

Bihar egingo dute Elgoibarren fibrosi kistikoa gaixotasuna dutenei laguntzeko elkartasun ekitaldia. Ahal duten lagun gehien jarri nahi dituzte igerian, 17:00etatik 19:30era bitartean, Olaizaga kiroldegiko igerilekuan. Gaixotasunari buruzko informazioa emango dute Olaizaga kiroldegiko harreran ipiniko duten mahai informatiboan. Ez dute sarrerarik kobratuko, baina borondatea emateko aukera izango da. Gehienbat birikietan eragiten duen gaixotasun hereditario, kroniko eta degeneratiboa da fibrosi kistikoa. Ekitaldia Udalak, Kirol Patronatuak, Igeriketa Taldeak, Master Taldeak eta Sanlok antolatu dute, FQ Arnasa elkartearekin batera.

### eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

### hildakoak

- Lourdes Magunazelaia Gonzalez de Audikana. 60 urte. 2018-XII-3.
- Melchor Loiola Egia. 89 urte. 2018-XII-5.
- Jesus M<sup>a</sup> Eizagirre Seara. 62 urte. 2018-XII-6.
- Marcos Gimeno Vesga. 44 urte. 2018-XII-7.
- Antonio Alberdi Atxa. 87 urte. 2018-XII-8.
- Juana Marques Martos. 90 urte. 2018-XII-10.
- Jose Milikua Balzola. 88 urte. 2018-XII-10.
- Imanol Ugarteburu Izeta. 71 urte. 2018-XII-10.
- Juanita Sarraoa Arrien. 94 urte. 2018-XII-11.

### jaiotakoak

- Alaia Michele Valdes Ovalles. 2018-XI-28.
- Razan Ghrib. 2018-XI-28.
- Rawan Ghrib. 2018-XI-28.
- Markel Zorrakin Elizburu. 2018-XII-2.
- Nahia Garro Martinez. 2018-XII-4.
- Ainhoa Espilla Zabalo. 2018-XII-6.
- Jon Berrizbeitia Irastorza. 2018-XII-7.

### farmaziak

- Barixakua 14  
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Zapatua 15  
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Domeka 16  
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Astelehena 17  
EGUNEZ Mendiñeta (Urkizu, 6)
- Martitzena 18  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztena 19  
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Eguena 20  
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
- Barixakua 21  
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)

GAUEZ BETI - 2018AN-  
 Lafuente (Sostoatarren, 10)

### telefono

### jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro ospitala.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Lurraldebus.....	900 30 03 40
Pesa.....	900 12 14 00
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
AI-Anon/Alateen.....	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak).....	699 37 75 20

### SUDOKUA

### AURREKOAREN EMAITZA

3	8	7	4	6	2	3	5	1
6	4	1	9	5	3	8	2	7
5	2	9	7	8	1	4	6	3
4	1	2	8	3	5	6	7	9
9	6	8	1	7	4	5	3	2
7	5	3	6	2	9	1	4	8
8	9	5	3	4	7	2	1	6
1	7	4	2	9	6	3	8	5
2	3	6	5	1	8	7	9	4

	5		7		6			9
							1	6
3		6		5				
	9				2			
1			8		4			7
			3				4	
				3		6		2
8	7							
5			2		7		8	

## Barixakua 14

### EIBARKO KANTUZALEAK

17:00. Abesbatzaren emankizuna Gerontologikoan.

### JOSTAILU-DONAZIOA

17:00/19:00. Gabonetan umeei oparitzeko, Eibarko Gazte Sozialisten eskutik. Untzagan.

### INAUGURAZIOA

19:00. "Harria", J. Antonio Palaciosen argazki erakusketa eta liburu aurkezpena. Portalean.

### ZINE-FORUMA

19:00. "Tambien la lluvia" (Iciar Bollain). Izaskun Rodriguez Elkororekin. Portalean (areto nagusian).

### JAM DIBUJO SESSION

21:00/23:30. Musika: Lorea Ciuba. Modeloak: Zuriñe eta Manu. Sarrera: 10 euro. Biharran-en (Ubitxa, 16).

## Zapatua 15

### MANIFESTAZIOA

12:00. Jubilatuta eta pentsiodunena, pentsio duinak eskatzeko. Untzagatik abiatuta.

### ZAPATUKO IPUINA

18:00. "Olenzero maitea", Leire Apikaren eskutik. Umeen liburutegian.

### GIPUZKOAN GAZTE TOUR

18:00. Parrapas taldea.  
19:00. Bagolaz-eko partaideak.  
20:00. Twin Melody.  
21:00. DJ Txurru. 5 euro. Astelena frontoian.

### ANTZERKIA

19:00. "Rapsodas, S.A." (La Red Teatro). Antxon gozotegian.

### KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren irteera. Untzagatik abiatuta.

## Domeka 16

### MUSIKA

12:30. Eibako Cielito Musika Bandaren Gabonetako kontzertua. Coliseoan.

## Astelehena 17

### IKASTEN

10:00. Antzerkia. Portalean.

### ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatuta eta pentsiodunen kontzentrazioa, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan (udaletxe parean).

## Martitzena 18

### IKASTEN

10:00. "Sheakespeare" hitzaldia, Jose Domingoren eskutik. Armeria Eskolan.

### IKASTEN

16:00/19:00. Punto-tailerra.  
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

### DOKUMENTALA

17:30. Doluari buruzko tailerra. Iñaki Peña medikuak zuzendutako 'Aulki Hutsak'-aren proiektzioa eta solasaldia. AECC Gipuzkoaren lokalean (Ardantza, 11).

## zineaColiseoan

### "Durante la tormenta"

(1 ARETOAN)  
15ean: 19:45, 22:30  
16an: 20:00  
17an: 20:30

### "Cadáver"

(2 ARETOAN)  
15ean: 17:00, 19:45, 22:30  
16an: 17:00, 20:00  
17an: 20:30

### "Robin Hood"

(ANTZOKIAN)  
15ean: 17:00<sup>(1)</sup>, 19:45, 22:30  
16an: 17:00<sup>(1 aretoa)</sup>, 20:00  
17an: 20:30

### "Ralph rompe Internet"

(ANTZOKIAN)  
15ean: 17:00  
16an: 17:00

## Eguaztena 19

### IKASTAROA

19:00. Kandela ikastaroa. ...eta kitto! Euskara Elkarte (Urkizu, 11).

### MUSIKA

19:00. J.B. Gisasola Musika Eskolako Gabonetako kontzertua. Coliseoan.

### ZINE-FORUMA

19:00. "Eibar, entorno urbano industrial en reconversion. La epopeya industrial vasca". Portalean (areto nagusian).

### EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

### LIBURU-AURKEZPENA

19:30. "Viaje por el país de los recuerdos" Toribio Etxebarriaren liburu aurkezpena. Udaletxean (pleno aretoan).

## Eguena 20

### IKASTEN

10:00. "Bizitza Gerren arteko Europan 1919-1939 (II)" hitzaldia, Antonio Riveraren eskutik. Armeria Eskolan.

### KALEETAN KANTUZ

17:00. Kaleetan Kantuz dantza taldearen entsegua (hastapena, beteroanen entsegua 18:00etan hasiko da).

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

### SOLASALDIA

19:00. "Hamaika desio utopiarako" Ibon Muñozaren liburuari buruz. Partaideak: Leire Narbaiza, Asier Serrano eta Antxon Narbaiza. Moderatzailea: Edurne San Martin. Arrate Kultur Elkarte.

### HITZALDIA

19:00. "Dibertsitatearen kudeaketa euskal gizartean", Andrea Luis Balzola antropologoaren eskutik. Portalean.

## Erakusketak

### Abenduaren 16ra arte:

— ROSARIO BAGLIETTOREN "REPRODUCCIÓN OVÁRICA Y DE LAS FLORES" MARGOAK (*Untzagako Jubilatuta Etxea*)

### Abenduaren 23ra arte:

— ESTEBAN OROZEN MARGOAK (*Topalekua*)

### Abenduaren 31ra arte:

— PEDRO ARRIOLAREN "PAINE PARK" ARGAZKIAK (*El Ambigú*)  
— "KALEKO ARGAZKIAK BILBO" ("STREET PHOTOGRAPHY EN BILBAO") ARGAZKIAK (*Portalea jatetxea eta Depor*)

### Urtarrilaren 5era arte:

— KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEAREN "PAISIA" ARGAZKIAK. (*Portalea*)

### Urtarrilaren 7ra arte:

— J.A. PALACIOSEN "HARRIA" ARGAZKIAK. (*Portalea*)



Zorionak, MIREN, martitzen 7 urte egin zenuazen-eta. Patxo haundi bat etxeko gutzian eta, batez be, KEPAREN partez.



**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**



Zorionak, URKO Lapeyra Ibarra, hillairen 11n 3 urtetxo egin zenduaz-en-eta. Patxo bat etxekuen eta, batez be, Mikelen partez.



Zorionak, JANIRE, hillairen 7xan 10 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat, guapetona, Eibarko famelixaren partez.



Zorionak, MALEN, atzo 2 urte bete zenduaz-en-eta. Gure txikixa haunditzen doia!! Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, BIHOTZ, hillairen 7xan 2 urte egin zenduaz-elako. Musu bat famelixaren eta, batez be, Amets eta Hodeiren partez.



Zorionak, NAIÁ Navarrete, hillairen 18xan 7 urte beteko dozuelako. Musu haundi bat aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, MIREN, astelehenian 6 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat amatxo eta aitaxoren partez.



Zorionak, ZALOA, astelehenian 12 urte egin zenduaz-en-eta! Musu bat, printzesa, etxekuen partez. Jarraitu holan!




Zorionak, GAIZKA, domekan 9 urte egin zenduaz-en-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Alaitz arrebaren partez.



Zorionak, LUKA!, bixar gure mutilxuek 4 urte beteko diitu-eta. Ondo pasau!! Famelixaren eta, batez be, zure arreba Nilen partez!



Zorionak, HEGO!!, atzo 2 urte bete zenduaz-en-eta! Musu haundi bat Markel eta etxekuen partez.



Zorionak, GORKA, atzo 3 urtetxo egin zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez. Maite zaittugu.



JULEK atzo 3 urte bete zittuan. Patxo potolua etxekuen eta aittiita-amamen partez. Segi alai eta jator, printzesa!



Zorionak, JUNE Sukia, domekan 8 urte beteko dozuz-eta. Laztan haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ALBA, haraifegun 15 urte bete zenduaz-elako. Zure gurasuen eta nebaren partez.



Zorionak, ANE, neska haundi!! Bixar 8 urte betetzen dozuz-eta. Patxo haundi bat etxeko guztien partez!



Zorionak, JULEN!!, martitzenian 10 urte egingo dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez!



Zorionak, MAIDER, atzo urtetxua bete zenduan-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MARKEL, hillairen 8xan 9 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ANER, domekan 3 urte beteko dozuz-eta. Milla musu famelixaren partez.



Zorionak, MALEN Urizar Arruti, bixar 10 urte beteko dozuz-eta. Musu bat famelixaren partez.



Zorionak, UR Agote Gorostizaga, hillairen 8xan urtiak egin zenduaz-en-eta. Musu bat famelixaren partez.



Zorionak, MARTIN, mutil haundi!!! Gaur 2 urte egiten dozuz eta patxo potolua etxekuen partetik.



Zorionak, EÑAUT Andres, martitzenian 11 urte egingo dozuz-eta!! Famelixa guztiaren partez!!!!



Zorionak, MIKEL, eguaztenian 3 urte egin zenduaz-elako. Milla patxo, txapeldun!, etxekuen partez.



Zorionak, NORA, etxeko printzesak atzo 6 urte bete zittuan-eta! Musu bat famelixaren eta, batez be, zure ahizpa Mirenen partez.



Zorionak, IRAI, astelehenian 6 urte egin zenduaz-en-eta. Zein haundixa! Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Ongi etorri, JON, hillairen 7xan jaixo ziñalako. Zorionak, Saioa eta Ander!!



Zorionak, PEIO, hillairen 6xan urtetxua bete zenduan-eta. Etxeko guztien partez.



Zorionak, MADDI eta PATXI. Daguanekeo aste honetan zuen urtebetetzia izan da-eta. Zorionak eta patxo potolua famelixa guztiaren partez. Segi alai eta jator, bikote!!





# Hyundai SUV Gama

## Berria.



SANTA FE

TUCSON

KONA

13.900€-tik aurrera

Zure mugak gainditu, zerbait handia aukeratu eta biziki bizi.

Eta horretarako hainbat aukera eskaintzen dizkizu **Hyundai SUV Gama berriak**.

Berriena nahi baduzu, **Hyundai Tucson Berria** aukeratu. Segurtasunean, konektagarritasunean eta prestazioetan puntako teknologia eskainiko dizu.

**Hyundai Kona**-rekin estiloak, konektagarritasunak, abangoardiako diseinuak eta elektrizitateak inspiratuko zaituzte.

Eta azkenik, handiena, **Hyundai Santa Fe Berria**: sofistikazioa, espazioa eta luxua detailerik txikienean ere.

Zuk aukeratu.

**OARSO CAR**  
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPLUZKOARAKO  
[WWW.OARSO-CAR.COM](http://www.oarsocar.com)

**GRUPO EASO MOTOR**

**ELGOIBAR**  
Olaso Polig., 17  
943 74 14 80

**OIARTZUN**  
Lintzirin Poligonoa, 1  
943 49 48 30

**HYUNDAI**

**5 BERMEA MUGARIK GABE**

Hyundai KONA Gama: CO<sub>2</sub> emisio konbinatuak (gr/km): 108-160. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,1-7,1.

Hyundai TUCSON Gama: CO<sub>2</sub> emisio konbinatuak (gr/km): 123-175. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,7-7,7.

Hyundai SANTA FE Gama: CO<sub>2</sub> emisio konbinatuak (gr/km): 147-215. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,6-9,3.

WLTP homologazio-ziklo berriaren arabera lortutako kontsumo- eta emisio-balioak. PSP gomendagarria Penintsulan eta Balearretan Hyundai SUV Gamarentzat: Kona 1.0 TGD 88,3kW (120CV) 4X2 ESSENCE (13.900€), BEZ, garraioa, matrakulazio-zerga, sustapen-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta mantenimendu-eskaintza barne. Hyundai-ra Aldaketa Plana aplikatu daiteke, Hyundai berri bat erosi baino 6 hilabete lehenago gutxienez, erosilearen titulartasunean erabilitako auto baten truke. Eskaintza hau aplikagarria da Hyundai MOVE produktuarekin finantzatzen duten bezero partikularrentzat, Banco Cetelem, S.A.U.-ren bitartez, 12.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxienezko epean eta 36 hilabeteko gutxienezko egonaldiarekin. Finantziakzioa finantza-erakundeak aztertu eta onartu behar du. Finantziatzailearen lotutako gastuak (komisioak, interesak edo Aseguru-programak) ez daude barne; horiek [www.hyundai.es/configurador](http://www.hyundai.es/configurador) web-ean kontsultatu daitezke. 15.400€ finantzatu ez duten bezeroentzat PSP gomendagarria. Eskaintza 2018/12/31ra arte da baliozkoa. Irusten diren modelotako: Tucson Style, Kona Style eta Santa Fe Style (dagukun osagarri gisa soilik eskuragarri). Mantenimendua autoren finantziatzailearen lotuta, Hyundai Motor Espainia S.L.U.-k bere bezeroei eskaintzen dien kilometraje-mugarik gabeko 5 urteko berme komertziala Hyundai sare ofizialean salduko ibilgailuei soilik aplikatuko zaie, zerbitzu-pasaportearan arabera. Kontsulta ezazu eskaintza, mantenimendua eta bermearen baldintzak Hyundai kontzesionarioaren edo [www.hyundai.es](http://www.hyundai.es) helbidean.

OPARIAK

Zaindu  
**Gabonetan**

KOSMETIKA SORTAK

Aukeratu zure parekoa  
Erosi zure ohiko zentroan

**not+vello**

AZPEITIA: ILDEFONSO GURRUTXAGA, 8, BEHEA - 20730 AZPEITIA - TEL. 943044422

EIBAR: EGO GAIN, 20, BEHEA - 20600 EIBAR - TEL. 943538805

[www.nomasvello.es](http://www.nomasvello.es)




Gure betaurreko guztiak  
bilduma berrietakoak dira

Gabon hauetan oparitu




**%30 DESKONTUA**

eguzkitako betaurrekoetan



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

R.P.S. 175/15 I.L.G.

[www.multiopticasgipuzkoa.com](http://www.multiopticasgipuzkoa.com)   

Bidebarrieta, 2  
Tel.: 943 20 05 22  
**EIBAR**

**MULTIOPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan